



“Ni naiz Hector, ni bakarrik!”

Komedia erromantiko hiperbolikoa

Jokin Oregi Iñurrieta

(2008an estreinatua)

PERTSONAIAK:

Hector: Kontablea. 38 urte.

Hector-en Nia 1

Hector-en Nia 2

Esti: Psikologoa. 28 urte.

Carla Gomera: Psikiatrian doktorea. Estiren ama. 52 urte.

Ni naiz Hector, ni bakarrik!

Hector bere NI-engandik ihesean dabil, ezkutaketa jolas absurdo batean murgilduta dabilta gela zabal eta minimalista batean. Gelan mahai bat dago, aulki bat, dibana eta sofa luze eta zabal bat. Kanpora ematen duen atea ezkerrean dago eta etxeko gainontzeko geletara ematen duen atea, berriz, eskuin aldean. Hector eta bere bi NI-ak erropa berdina daramate soinean eta halaxe izango da agertzen diren aldiro.

Nia1: (*Jostalari*) Hector. Non hago? Tira, elkarrekin egoteko eginak gaudek gu biok, hezur eta haragia gaituk... Hi hezurra haiz.

Nia2: Eta ni zer?

Nia1: Hi? Zera, hi, zera haiz...Ez hadi haserretu baina oraindik ere ez diat ulertzen zer egiten dian gurekin. Nik asko maite haut, ulertu ezak, baina berak ez hainbeste, hitaz zera pentsatzen duela uste diat..zera haizela, apur bat, pixka bat...zera bezela...hik konprenitzen didak. Hanka biak apurtu nahi badizkiok nik ez diat eragotziko. Hortxe zagok!

Berriro ere Hectorren atzetik hasi dira, hura harrapatu nahian. Hectorrek, azkenean, amore eman du, beste biak gainean dituela ohartu denean.

Hector: Ongi da. Aski duk!

Hector sofan eseri da lur jota. NI-ek beste horrenbeste egin dute. Haren aldamenean eseri dira, ezker eskuin.

Nia1: Patetikoa haiz. Hire burua ikusi beharko huke. Hondoa jo duk. Inortxok ere ezin dik norbere buruarengandik ihes egin. Saiatu zuan azkena Michel Jackson izan zuan eta begiraiok nola bukatu duen gixajoak. (...) Benetan sinistuta hago neska horrek lagunduko diaala?

Hector: Zergatik ez ba?

Nia1: Hire gaztaroko maitasun platonikoa aukeratzea ere, hain gaizki gaudek elkarrekin ala? Azkenean hori ere ez zaik geratuko.

Hirurak ohartu dira badatorrela Esti. Hector, azkar, dibanean eseri da, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Nia1 eta Nia2 sofan geratu dira.

Hector: (*Ahots beheara*) Berandu baino lehen zuetaz libratuko nauk.

Nia1: Hik egizak amets, koittadu horrek.

Esti sartu da gelan, baso bete ur eskuan dakarrela.

Esti: Hemen ura.

Hector: Mila esker, oso atsegina zara.

Nia1: Eta hi ergel galanta.

Esti: Jarraitu kontatzen, zerek bultzatuta etorri zara nire kontsultara?

Hector: Tira, arrazoi bi baditudala esango nuke.

Esti: Zeintzuk dira ba?

Nia1: Ez zakiat zer demontregatik ordaintzen zaion hainbeste diru jendilaje honi, polita izango balitz sikiera...

Hector: Zera, apur bat deseroso sentitzen naiz.

Esti: Deseroso?

Nia1: Jainko maitia, hasiberria dela igartzen zaiok. Pikutara maitasun platonikoa. Gizon batentzak ez zagok zigor gaiztoagorik norberaren Dulcinea aurkitu eta ezagutzea baino.

Hector: Nahikoa duk! Oh, ez, ez dizut zuri esan. Zera, ordua zela iruditu zait... Baina oraindik ez, ezta? Oso etxe polita duzu, Ze mendetakoa da?

Esti: XXI. mendekoa, ihaz eraiki zuten.

Nia1: Hi, jakinzak honek hankak apurtuko dizkiala.

Hector: Bistan da berria dela, jakina, baina seguraski aurreko bat bota ondoren eraikiko zuten...

Yo 1: A ze lotsa.

Esti: Etxeaz hitz egin nahi duzu, seguru?

Nia1: Jakina, hitz egin dezagun etxeaz, esaiok logela erakusteko.

Hector: Gaiaz aldatzea nahiago.

Esti: Ederki.

Hector: (...) Nire etxea XIX. mendekoa da. Nire herenaitona etxea eraiki zuten langileetako bat izan zen, eta gero, handik urte batzuetara, pisua erosi zuen erainkin berean.

Esti: Hara, zure herenaitona erromantiko bat zen.

Hector: Bai, peto petoa, maitasun arazo batengatik bere buruaz beste egin zuen.

Esti: Sentitzen dut.

Hector: Egia esan, sekula ez zen ziur jakin suizidioa edo hilketa saioa izan ote zen, izen ere, gorro zion auzo(kide) baten gainera erori zen.

Nia1: Hanka biak apurtzeko une aproposa dela uste diat.

Esti: Bietako zein bertsio duzu nahiago?

Hector: Ba ez dakit, biak izugarriak zirela uste nuen nik...

Esti: (*Lotsaz*) Jakina.

Nia1: Goazemak Hector, ez diat aguantatzen. Sekula ez duk hire helburua lortuko.

Hector: Laguntza behar dut.

Esti: Noski, horregatik zaude hemen. Zergatik uste duzu laguntza behar duzula?

Hector: Zera, batzutan...

Nia1: "Ahotsak entzuten ditut..."

Hector: Nola esan...

Nia1: "Ahotsak entzuten ditut..."

Hector: ...Sentsazio arraro batek harrapatzen nau eta...

Nia1: Banekian, koldar hutsa haiz.

Esti: Bai?

Hector: Ba...arraro sentitzen naizela.

Nia1: Ño, ederto ari haiz, garbi eta xuxen, nik ez nitek hobeto deskribatuko, sentsazio arraro bat arraro sentitzearen antzeko zerbait da. Harrapa ezak!

Esti: (...) Ondo da. Ongi baderitzozu, amaitzeko pare bat gauza egingo ditugu.

Fitxa batzuk atera ditu Estik. NI-ak frogan parte hartzeko asmotan hurbildu dira.

Esti: Joan esaten zer ikusten duzun fitxa bakoitzean.

Nia1: Bi poxpolin larrua jotzen.

Hector: Lore bakarti bat.

Nia2: Hori garfio bat duk.

Nia1: Agian hiru dituk...

Beste fitxa bat.

Nia1: Bi emagalduta larrua jotzen bi zakil dituen beltz batekin. Et, et, et, hemen hirugarren kikiliño bat zagok.

Hector: Neguko arratsalde bakarti bat.

Nia2: Odol putzu bat.

Beste fitxa bat.

Hector: Baliteke...bale bakarti bat izatea...

Nia2: Odol putzua.

Nia1: Emakume lodikote bat...nano batekin txortan.

Beste fitxa bat.

Nia1: A ze zakil puska!

Hector: Bazter batean utzitako giltz bakarti bat.

Nia2: Labana.

Beste bat.

Nia1: Beltz bat bi urdangakin txortan. Eta beltzak...bat, bi, hiru eta lau zakil dizkik.

Hector: Emakume bakarti bat banku batean eserita, triste dago.

Esti: Nahikoa da.

Nia2: Odol putzu bat zuan.

Nia1: Neska honek buruan sexua besterik ez dik, arraioa!

Hector: Ondo egin al dut...? Betaurrekoekin baliteke... Honek gauzok, apur bat zera...jartzen naute...

Esti: Ezin hobeto egin duzu. Orain orri honetan nahi duzuna marraztea nahi dut. Burura datorkizun lehenengo gauza.

“Hector” bakoitzak harkatz bana hartu du Estik eskeinitako potetik eta hirurak hasi dira aldi berean neskak emandako orrian marrazten. Bukatu eta Estiri eman diotenean, honek ia ezin dio harridurari eutsi.

Esti: Tira...ba...hori izan da guztia.

Nia1: Hara, monjatxuari ez zaiok gure artelana gustatu. Neska honekin maiteinduta egon hintzen, benetan?

Esti: Ongi baderitzozu datorren astean elkar ikusiko dugu berriro.

Hector: Ezin al da lehenago? Agian gaur arratsaldean...

Esti: Ez dut uste...

Hector: Ordu pare bat barru etor naiteke berriro...

Nia1: Ez gu izorratu, Hector, nahikoa diagu.

Doctora: Egia esan, ez dakit...hobe datorren astean bada...Normalean hala izaten da...

Nia1: Ikaratu egin duk.

Hector: Ikaratu egin al zaitut?

Doctora: Ez. Baina ez dut uste komenigarria denik...Hobe datorren astean bada.

Hector: (*Dirua atera bitartean*) Ongi, primeran, ederki...jakina, normalean hala izaten da, eta normala ez dena anormala denez ba, hobe bietako bat aukeratzekotan normala aukeratu...Esan nahi dut itzuliko naizela, datorren astean.

Nia1: Hi bai, subnormala. Denbora galtzen ari haiz, Hector, diru horrekin gure buruai homenajetxo bat egitea hobe, ez duk?

Hector: Dirua nirea da!

Esti: Jakina, Hector, baina uste dut argi geratu dela kontsultak 50 euro balio duela...

Hector: Bai, jakina, noski.

Eman egiten dio. Estik karteran sartu du.

Esti: Hector, zera...zu eta biok ez gara nonbaiten ikusi? Zure aurpegia ezaguna egiten zait...

Nia1: Harrapatu hau.

Hector: Ez dut uste.

Doctora: En fin...Oraidik ere ez didazu esan non egiten duzu lan.

Hector: Bulego batean.

Nia1: Soto ustel batean.

Hector: Kontablea naiz.

Nia1: Etzak egin!

Hector: Baina ez haurrei ipuinak “kontakten” dabilen horietakoa... (*Berak bota eta berak barre*)

Estiren ezpainean irrifar ergela marraztu da.

Nia1: Hi haiz hi lerdoa, neska honekin oheratzeko aukera txikiena egonda ere, oraintxe zapuztu duk.

Badoaz.

Esti telefonoa hartzera abiatu da presaka. Bitartean, Nia 2 gelan sartu da zarata txikiena saihestu nahian eta neskaren karteratik 50 euroak hartu ditu. Dirua bereganatu eta badoa kanpora. Esti ez da ohartu ere egin gertatutakoaz. Ama agertu da. Pozarren dabil hondartza exotiko bateko taberna batean.

Carla: Zer moduz, maitea?

Esti: Ama, ezin dut. Pastilak non gordetzen dituzun ere ez dakit eta...

Carla: Jainkoarren, txikitxo, gora animo hori.

Esti: Ezin dut egin, kasu benetan konplikatua da, inoiz ez dut halakorik ikusi...

Carla: Jakina ez duzula ikusi, zure lehen bezeroa da.

Esti: Pazientea.

Carla: Nola?

Esti: Ezer ez, utztazu.

Carla: Ordaindu dizu? Ospatu egingo dugu, zure lehen soldata da.

Esti: Ez dut ezer ospatzerik nahi! Agian Biologia ikasten hasi beharko nuke, edo harotza izateko ikasi...Kazetaritza beharbada...

Carla: Kazetaritza?! (...) Hirugarren kajoian dituzu.

Esti: Nola?

Carla: Pastillak, neska, hirugarren kajo barren barrenean dituzula. Ez hartu bi baino gehiago.

Esti: Zergatik ez duzu zerorrek atenditzen? Ideia ona da, ez duzu uste?

Carla: Maitea, nik dagoeneko ez dut inor hartzen. Interesgarriagoa da liburuak idaztea, sinetsidazu, batez ere besteren batek zure ordeztu egiten duenean. Hartu atsedena, txikitxo.

Esti: Baina ama...Ama?

Ama desagertu egin da. Estik pastila bi irentsi ditu. Gero Marrazkiari bistadizo beri bat ematen dio eta hirugarren pastilla bat hartzen du. Karteran begiratu eta 50 euroak falta zaizkiola ohartzen da, ez du ezer ulertzen. Badoa.

Ama etxean sartu da, oportetatik bueltan dator, berareki dakarren maleta lurrean utzi du. Esti atera da. Zur eta lur geratu da ama itzuli dela ikusita.

Esti: Baina... Abisatu izan bazenit zure bila joango nintzateke aireportura...

Carla: Ez haserretu txikitxo baina inoiz ez zait gustatu nola gidatzen duzun. Nola zaude?

Esti: Ongi.

Carla: (*Sinets gogor*) Jakina. Sarrerako lurra aldatu behar dut, gorroto diot sartzen naizen bakoitzean egurrak kirrinki-karranka egiteari, arima penatu bat ematen dut, edo okerragoa dena, antzerkiko aktorea.

Esti: Ze ba, pekatu mordoa egin duzu ametsetako irla horretan, ala? Pekatuak garbitu beharra duzu?

Carla: Ez dago pekatuak arinduko dituen ezer, maitea. Pekatuak pilatzen joaten dira urteetan zehar minbizia eragin arte.

Esti: “Pekatu sendaezinaren bizi mina”

Carla: Ez dago ez mediku ez apaizik sendatuko duenik.

Esti: “El pecado no tiene cura que lo cure”.

Carla: Amen.

Esti: Ez didazu ezertxo ere kontatu behar?

Carla: Gizon bat ezagutu nuen.

Esti: Hara, gizonak berriro ere interesatzen zaizkizu?

Carla: Nor zen jakin nuenean interesatu zitzaidan.

Esti: Alderantziz zela uste nuen, benetan nortzuk diren jakiten duzunean interesa galtzen duzula.

Carla: Hau nire paziente baten senar ohia zen, Alberto Hidalgo. Goitik bera ezagutzen dut eta harek, oster, ez zekien ni nor nintzenik, eta are gutxiago nik neuk gomendatu niola bere emazteri dibortzioa eskatzeko.

Esti: Hara...

Carla: Gixajoak ez du bururik altza ordutik. Lur jota dago.

Esti: Ez zinen errudun sentitu?

Carla: Ezta gutxiagorik ere, harekin oheratu bezain laster jakin nuen zuzen jokatu nuela.

Esti: Senarrarekin oheratu zara?!

Carla: Senar ohia, maitea, eta benetan, ez zuen pena merezi.

Kanpoko ateko txirrin hotsa entzuten da.

Esti: Oh, kaka, bera da!

Carla: Nor, ordea?

Esti: Nire pazientea!

Carla: Ez zenuen espero ala?

Esti: Bai, jakina. Neronek deitu nion. Beste profesinal batengana joatea gomendatuko diot.

Carla: Ez duzu horrelakorik egingo.

Esti: Gehiegi da niretzat, ama.

Estik Hectorrek egindako marrazkia ematen dio amari, baina honek ez dio begiratu bat ere emango.

Carla: Ez duzu atzera egingo. Ez dizut utziko. Denbora eta diru mordoa gastatu duzu karrera hau aurrera ateratzeko, normala baino askosaz gehiago, zure perfekzionsmo alu horregatik. Badakizu zenbat diru den hori?

Esti: Baina karrera nire dirutik ordaindu dut.

Carla: Jakina, nor naizela uste duzu? Ama arduraduna naiz ni.

Carla: Ni ere banaiz, eta horregatik diot ezin diodala kasu honi aurre egin.

Carla: (...) Txikitxo, munduan gaixo mordoa dago, goiz ala berandu haietako bati aurre egin beharrean egongo zara. Ez duzu beste aukerarik.

Esti: Mesedez, ama!

Carla: Ongi da, ez didazu beste irtenbiderik uzten. Kasua bertan behera lagatzen baduzu beste etxe bat bilatzen hasi beharko duzu. Argi dago?

Esti: Ni etxetik botatzeko kapaz izango zinateke?

Carla: (...)

Esti: Galdera inozoa izan da.

Beriro ere txirrin hotsa.

Carla: Denbora eman behar diozu zure buruari, ezin duzu lehenengo saiakeran amore eman. Zabaldu atea, jainkoarren! Izan ausardia behingoagatik bada ere!

Esti: Agian arrazoi duzu.

Carla: Hala izaten da beti. Aukera ezin hobea da. Paziente honi laguntzeko gai bazara zure beldur guztiak uxatuko dituzu. Zure esku dago. Kasua utziz gero, akabo dena.

Esti: (...)

Carla: (*Bere karteratik dirua ateratzen duen bitartean*) Portzierto, ez dut astirik izan zuri opari bat erosteko, tori, eta eros ezazu nahi duzuna.

Badoa ama Estik eman dion marrazkia eskuan duela, nahiz eta oraindik ere ez dion irudiari erreparatu. Txirrin hotsa entzuten da, oraingoan etengabe ari dira jotzen. Estik arnasa hartu eta atea zabaltzen du mahai ganean dagoen pulsagailu bat zanpatuz. Badator Hector, bere bi NI-ekin.

Nia1: Ikusten? Oraingoan bai entzun dik txirrin hotsa.

Hector: Ez nuen nahi horren anker txirrina jotzerik... ni...

Esti: Ez dio axola, ongi dago.

Nia1: Perfume usaina zagok, Hector, atsegin hauela dirudik...

Esti: Zer moduz, Hector?

Hector: Ondo, ongi.

Esti: (*Sinets gogor*) Jakina. Eseri zaitez.

Halaxe egin du Hectorrek dibanean.

Hector: Harritu egin nau zure deiak...

Esti: Bai, en fin... agendan tartetxo bat banuela ohartu nintzen eta...

Nia1: Zer espero litekek gezurrik esaten ere ez dakien neska batengantik?

Esti: Nola zaude?

Hector: Nire herenaitona gogora ekarri dut etengabe. Haren geneak ditudala uste dut.

Esti: Erromantiko bat zara beraz...?

Hector: Ez, suizida bat naizela uste dut.

Esti: (...)

Nia1: Primeran, Hector, harira, kontsultak dirutza balio dik eta.

Esti: Azaldu hori, zergatik uste duzu suizida bat zarela?

Nia1: Galdetu ea zenbat paziente dituen.

Hector: Izan ere...

Nia1: Bakarra haizela apostu egingo nitek.

Hector: ...Ba zera...

Nia1: Eskuak dar-dar batean dizkik. Agian drogazalea duk...

Hector: ...Ahalegina egin nuen...nire buruaz beste egiten saiatu nintzen.

Esti: (...) Kontatuko didazu zerek bultzatu zintuen hori egitera?

Nia1: Bultzatu? Ez al zuan ba suizidioa izan? Kar, kar...

Hector: Neska batekin irteten hasi nintzen...Ez, ez dut uste harekin maiteminduta nengoenik, eta argi dago bera ere ez zela nirekin maiteindu. Hasi eta bi hilabetera beste gizon batekin alde egin zuen. Gizona korearra zen, korearrez hitz egiten zuen soilik eta gainera iparra zuen...tartamutua zela esan nahi dut. Halere, nahiago izan zuen hura ni baino.

Nia1: Seguraski oraintxe bertan txortan ariko dituk biak, jo eta su, bere anaia korear guztiekin batera, denak zure poxpolinarekin larrutan.

Hector: Aski duk! (...) Barkaidazu.

Esti: Ondo al zaude?

Hector: (*Baietz buruarekin*) Pote osoa irentsi nuen, ansiolitikoak, gero beste pote bat, lasaigarriak, eta azkenik hirugarren pote bat, pizgarriak.

Esti: Zer dela eta hartu zenuen erabaki hori ez bazeunden neskarekin maiteminduta?

Nia1: Galdera ona.

Hector: Galdera ona. Beharbada arrazoia ez zen izan galdu nuelako, berriro ere bakarrik geratu nintzelako baizik.

Nia1: Ni hirekin nengoan, tira gu biok gengoazan.

Hector: Ospitale batean esnatu nintzen, X abestia jarrita zuten gelan...Maite dut abesti hori.

Kantuan hasi da. Halako batean, beste biak ere abesten hasten dira. Hiru ahotsetan ari dira. Esti erabat liluratuta geratu da.

Esti: Hara, oso ondo abesten duzu...

Hector: Aspaldi taberna batetan egiten nuen, zulo ilun bat...“Konectica”. Hiri osoko lekurik ederrena zela erizten nion orduan...

Nia1: (*Nostalgia puntu batekin*) Hala zuan, bai.

Hector: Baina jabea gartzelan sartu zuten, apartamentuan etorkin talde bat ezkututzen zuelako.

Esti: Gizon solidarioa, ez da bidezkoa halakoak gartzelan sartzea.

Hector: Egia esan, etorkinak banku lapur talde bateko partaide ziren.

Esti: (...)

Hector: Eta lokala itxi zuen. Kale gorrian geratu nintzen. Nireak egin zuela uste izan nuen. Orduan ere nire buruaz beste egiten saiatu nintzen. Itsasoan sartu nintzen itota hiltzeko asmo sendoarekin. Baina egun hartan olatuak ikaragarri handiak ziren eta behin eta berriro hordarrera itzuli arazten ninduten. Ez zegoen olatu haiei aurre egingo zien kristaurik. Itsaso ertzean esnatu nintzen. Hogeitik gora ume inguruan nituen, zerraldo nengoela oihiatuz. Heuren andereñoa aho arnasketa egiten ari zitzaidan. Gero

elkarrekin irtetzen hasi ginen...Korear tartamutuarekin alde egin zuen arte. Zuk baduzu haren antza, neskarena, esan nahi dut.

Nia1: Ai, ze polita...Etsegin duk! Benetan gustatuta hago neska honekin?!

Ama dator eskuan Hectorrek marraztutako irudia dakarrela.

Esti: Ama!

Carla: Barkatu maitea, uste nuen dagoeneko azalduko zeniola mutil...gazte honi, ez duzula kasuarekin jarraitu nahi.

Nia1: Hara, honek badik bai “zera” zer bat.

Esti: Ez, itxaron...

Carla: Bai, badakit, agian gogorregi jokatu dut lehen zurekin. Kasua bertan behera utzi nahi baduzu nik ez dizut eragotziko.

Nia2A suminduta zutitu eta amorrus begiratu dio amari.

Nia1: Zertan ari haiz? Hago lasai.

Carla: Kaixo, Estiren ama naiz, Gomera doktorea, psikiatra.

Hector: Atsegin handia da.

Esti: Ama...

Carla: Ez da ezer gertatzen, txikitxo, ez duzu zertan geizki sentitu behar, zaude lasai. (*Hectorri*) Inporta ez badizu neronek jarraituko dut kasuarekin.

Hector: Tira, nik...

Carla: Ulergarria da zalantzan egotea, normalean ez da hala gertatzen... baina oker ez banago, zure kasua ere ez da normalegia, ez da hala?

Nia1: Azkarra duk...Atsegin diat!

Esti: Ama, pribatuan hitz egin beharko genuke.

Carla: Ahotsak entzuten dituzu, ez da?

Nia1: Nola arraio asmatu dik?!

Esti: Ama, bukatzen dugunean...

Hector: Bai, ahotsak entzuten ditut.

Estik zur eta lur begiratzen dio mutilari.

Carla: Ongi...Zatoz bihar goizean, lagunduko dizut. Ondo deritzozu lehen orduan bada?

Nia1: Ño, bero bero jarri naik. Esaiok baietz, Hector!

Hectorrek Estiri egin dio so.

Hector: Ondo ari zela esango nuke...

Esti: (*Galtzaile*) Egia zera da, nire amak nik baino esperientzia handiagoa duela... Hobeto atendituko zaitu.

Nia1: Hara, banekian, hasiberria duk. Eta gainera ez dik higitik borroka larregirik egin...Tira, Hector, ez duk hitaz gogoratzen ere...

Hector: Baina...

Carla: Zuk sendatu nahi duzu, bai ala ez?

Hector: (...) Ongi da.

Nia1: Bai...! Agur monjatxoari eta ongi etorri emakume heldu harro katxarro eta doktore dotoreari!!!

Hector: Egitan lagunduko didazu? Berrero ere...normala izango naiz?

Carla: Nire hitza duzu.

Hectorrek eskua eman eta badoa. Atzetik Nia 1 doakio, pozarren. Nia 2, berris, emakumeari begira geratu da, gorrotoz. Nia 1-ek atzera egin eta besotik eutsi ondoren gelatik atera du.

Esti: Zergatik egin duzu?

Carla: Zuri mesedetan ari nintzela uste nuen...

Esti: Bai, baina...

Carla: Sinetsidazu, ezingo zenioke kasu honi aurre egin.

Esti: (...) Baina, ez dut uste ondo dagoenik...Zuk zeuk esan didazu aukera ezinhobea nuela...

Carla: Hara, badirudi zurekin ez dudala sekula asmatzen.

Esti: Ez da hori, baina...

Carla: Maitea, dagoeneko ahaztu egin duzu orain minutu gutxi negar intzirika ari zinela, nik kasua har nezan erregutuz?

Esti: Baina arrazoi zenuen, ez badiot aurre egiten gero ezingo dut...Zer dela aldatu duzu eritziz?

Carla: Zure pazientea interesgarria iruditu zait, besterik gabe.

Esti: Interesgarri?

Carla: Ezingo zenioke lagundu, oso kasu konplikatua da.

Esti: Uste nuen dagoeneko ez zenuela inor hartzen...

Carla: Kasu honek merezi duela uste dut. Are gehiago, seguru nago ponentzia on bat garatu dezakedala. Primerako aukera litzateke nire burua Estatu Batuean ezagutu arazteko eta nire liburuak han saltzen hasteko.

Esti: Horretarako erabili nahi duzu, zure egoa puzteko kolegen aurrean...Eta? Zer egingo duzu gero, bere beharrik ez duzunean, klinex batekin egiten den moduan zakarrontzira bota? Hori egingo duzu, ez da?

Carla: Jainko maitea, txikitxo, hiztegia aberastu behar duzu. Klinexaren metafora zeharo ankerra da. Aukeran hobeto esango bazenu "ezkontza eraztuna" bailitzan zakarretara botako dudala.

Esti: Ez zenuke hori esan behar, badakizu antsietatea gainezka hasten zaidala.

Carla: Tira, maitea, honez gero gaintuta izan beharko zenuke, nik dagoeneko erabat ahaztua dut nola utzi zenuen senargai koittadua altaran zuen ezkontza egunean.

Esti: Ez jarraitu, arren...

Esti azkar doa lasaigarri baten bila.

Carla: Har itzazu beheko kajoikoak, errudun sentimenduetarako aproposagoak dira.

Esti: (...) Beharbada alde egin beharko nuke, hobe izango da horrela, alde egin behar dut etxe honetatik. Ez nauzu zuk botako. Ni neu joango naiz.

Carla: Kontuz desio dugun horrekin, baliteke desioa betetzea eta. Baina zaude lasaigarriak bere lana egin arte, hizketaldi trankilago bat izan dugu orduan. Gero egingo dugu berba.

Esti: Agian “gero” ez naiz hemen egongo.

Carla: Ez izan inozoa, alabatxo, nora joago zara ba?

Esti: Lagun baten etxera.

Carla: Lagun bat? Nola du izena?

Esti: Laguna.

Carla: Eta zure karrera?

Esti: Orain gutxi zapuztu didazu.

Carla: Erabat petraltzen zara gauzak hain ilun ikusten tematzen zarenean. Gauza bat egingo dugu. Sesioetan mutil horrekin gertatutako guztiaren berri emango dizut.

Esti: Hector du izena.

Carla: Ongi deritzozu? Kasua jarraitu ahal izango duzu eta elkarrekin egingo dugu lan.

Esti: Inoiz ez didazu halakorik proposatu.

Carla: Ez nuke nahi damutzerik.

Esti: Sekula ez didazu konfidantza txikiena ere erakutsi.

Carla: Zu zara zure gaitasunean sinesten ez duena.

Esti: Ez ni psikoanalizatu. Gorroto dizut egiten duzunean.

Carla: Zuk ez dakizu gorrotoa zer den, txikitxo. Gorrotatu erdi purdiko jendeak egin dezake soilik.

Esti: Ni lausengatzeko esan duzu?

Carla: Jakina. Lasaiago zaude orain?

Esti: Ez.

Carla: Ba hartu beste pastila bat. Gaur Jaimerekin afaltzera noa, berandu iritsiko naiz.

Badoa ama. Esti pentsakor geratu da.

Iluna.

Ama agertokian azaldu da. Biharamona duela igartzen zaio, astelehena. Aspirina bat hartu du buruko mina arintze aldera. Txirrin hotsa entzuntzen da. Amak, atea zabaldu aurretik divana toki egokian kokatu du (Izan ere, sesioa grabatzeko asmotan bait dabil). Gero zanpagailua sakatu du. Hector dator, bere bi Niak atzetik dituela. Amak harrera egin dio eskua emanda.

Carla: Zer moduz?

Hector: Ondo, mila esker.

Nia1: Emakume hau handiegi geratzen zaik, Hector.

Carla: Eseri zaitez, mesedez.

Guztiak egiten dute, Hector divanean, eta beste biak sofan.

Carla: Alabaren oharrak irakurzen egon naiz. Zure buruaz beste egiten saiatu zarela ikusi dut, bi aldiz.

Hector: Hala da, bai.

Carla: Baina egoera aldatu egin da, laguntza eskatzeko gai izan zarela.
Hori oso ongi dago.

Nia1: Biharamona dik.

Carla: Esaidazu, noiztik entzuten dituzu ahots horiek?

Nia1: Gau osoa larrua jotzen eman dik, seguru.

Hector: Badira urte batzuk, hogeita bi urte nituenetik uste dut.

Nia1: Hainbeste denbora pasa duk?

Carla: Ze eratako ahotsak dira, zer esaten dizute?

Hector: Hain...hain dira benetakoak...Beti gainean ditut, ez dago haiek isiltzeko modurik.

Nia1: Tira, hori negoziatu (egin) zatekek.

Carla: Une honetan entzuten dituzu?

Hector: Bai.

Carla: Eta zer esaten dizute?

Nia1: Une aproposa dela gainera salto egin eta ordu luzetan txortan egiteko.

Hector: Ba zera...

Nia1: Esaiok barrabilik badaukak.

Hector: Ba... koldar bat naizela diote.

Carla: Iraindu egiten zaituzte?

Hector: Etengabe.

Nia1: Patetikoa haiz.

Carlak eskua bekokira eraman du, buruko mina eutsi ezinda dabil.

Hector: Ondo al zaude?

Carla: Egia esan buruko min txiki bat dut, barkatzen badidazu...aspirina bat hartuko dut.

Nia1: Banekian, astelehena dik. Etsegin diat!

Hector: Nahi baduzu beste baterako lagako dugu.

Carla: Ez, ez arduratu, minutu erdian berriro naiz hemen.

Badoa Carla. Hector, adeitsu, zutitu egin da. Parada hori probestu du Nia 1ek Hectorren lekuan esertzeko.

Hector: Zertan ari haiz?!

Nia1: Ez diat nahi doktore dotoreak gu ergeltzat hartzerik.

Hector: Zoratu egin al haiz? Altxa hortik.

Nia1: Ez diat horrelakorik egingo.

Hectorrek Nia 1 besotik hartu eta dibanetik altxa arazten saiatzen da. Nor baino nor ari dira, erdi burrukan bukatu arte. Bietako inor ohartu gabe, Nia 2 dibanean eseri da.

Ama dator bueltan. Harentzat Nia 2 da orain Hector.

Carla: Tira, hemen nago berriro ere.

Hector: Kaka! Zer egin diagu?

Nia1: Hirea izan duk errua, ez duk nire ardura.

Carla: Zera esaten ari zinen, entzuten dituzun ahots horiek iraindu egiten zaituztela.

Nia2: (...)

Hector: Jainko maitia!

Carla: Ez al da horrela?

Nia2: (...)

Nia1: Mutu jarraitzen badik, denontzat hobe.

Carla: Gaiaz aldatu nahi duzu?

Nia2: Zergatik duzu astelehena?

Hector: Joder.

Nia1: Joder.

Carla: Astelehena?

Nia2: Biharamona...resaka.

Carla: Ez dut astelehenik, eta gainera, hala izanda ere nire gauzek ez dute garrantzirik, zugatik gaude hemen.

Nia2: (...)

Hector: (*Nia2-ri*) Jainkoarren, uztak!

Nia2: Ez litzateke oso profesionala astelehena izatea.

Hector: Aski duk! Ospa nire lekutik.

Hector Nia2 altxa arazten saitzen dabil.

Carla: Ongi al zaude?

Hectorrek lortu du Nia2 dibanetik urruntzea. Baina orain Nia1 da haren tokia hartu duena.

Nia1: Listo, ez da ezer izan. Batzutan burua bueltaka hasten zait eta... Pasa da.

Beste biak nor baino nor ari dira Hector Nia 1 bere lekuan jarri dela ohartzeko arte. Hector amore emanda eserida sofan.

Carla: Iruditu zait...

Nia1: Pasa da, polit hori.

Hector: Joder...

Nia1: Badakizu? Egia esan ez zait inporta biharamona baduzu ere. Zure edertasunari ez dio inolako kalterik egin. Entzuten ditudan ahotsez hitz egiten jarraitzea nahi duzu?

Carla: Zuk hala nahi baduzu bakarrik.

Nia1: Molestia bat dira. Intimitatea betirako galdu dudala sinistuta nago. Ulertzen didazu ez da? Kanpaia jo ere ezin dut lasai egin.

Hector: Akabatu egingo haut, infernuan erreko haiz!

Nia1: Nire sexu fantasiez hitz egitea nahi duzu?

Carla: Egin nahi duzu?

Nia1: Zuk eskatzen badidazu...

Carla: Zera jakin nahiko nuke, ea une honetan Hectorrekin ari naizen.

Hector: Ez, Hector ni naiz. Harrapatu hau!

Nia1: Gela honetan nitaz aparte beste inor ikusten duzu ala?

Hector: Hector ni naiz! Bera iruzurtia da!

Nia1: (*Erregistroz aldatuz eta Hektorrenak eginez*) Barkaidazu doktorea, ez dakit zer gertatu zaidan!

Hector: Putakume halakoa!

Nia1: Laguntza behar dut, esan dizut lehen ere. Badakit gai zarela ni sendatzeko. Barkatu deseroso sentitu arazi bazaitut.

Carla: Ez, lasai, ongi da. Zuk libre sentitu behar duzu, kontsulta leku aproposa duzu horretarako.

Nia1: Nahiago nuke zurekin ohean banengo...

Hector: Nahikoa duk!

Hector berriro ere Nia1 bere lekutik kentzen saiatzen da, baina berriro ere, Nia2 eseri da dibanean beste biak konturatzera.

Carla: Ongi zaude, seguru?

Nia2: Oraindik ez didazu erantzun.

Carla: Nola?

Nia2: Zergatik duzu astelehena?

Hectorrek Nia1-ekin borrokatzeari utzi dio.

Hector: *(Desesperatuta)* Berriro ez, mesedez!!

Hectorrek indarrez altxa arazi du Nia2 bere lekutik eta azkenean lortu du dagokion tokia berreskuratzea.

Hector: Ez nago ondo, andrea. Etxera joan nahiko nuke, beharbada beste egunen batean jarraitu beharko genuke. Oraintxe gogoratu dut katua atera behar dudala pasetzera.

Nia1: Zer katuz ari duk?

Hector: Etxera itzuli behar dut.

Carla: Itxaron unetxo bat.

Hector: Joan beharra dut.

Carla: Nik ezin zaitut derrigortu, baina...

Hector: Tamalgarria da, badakit, baina katua...Hanka bat zaurituta du eta medikuak, albaitariak uste du ez badu paseatzen elbarri geratu daitekeela, eta katuentzako gurgildun aulkirik ez dagoenez...

Nia1: Zer egingo diagu hirekin?

Carla: Ongi da, baina berriro ere itzuliko zarela hitza eman behar didazu.

Hector: Nire hitza duzu.

Nia1: Gezurretan ari haiz.

Carla: Ez bazara itzultzen gauzek okerrera egin dezakete.

Hector: (...)

Carla: Ulertzen duzu, ez ta?

Hector: Bai, jakina. Esan zenbat zor dizudan.

Carla: Seguru zaude joan egin nahi duzula?

Hector: 50 euro ziren, ez ta?

Hectorrek dirua ematen dio.

Carla: 80 euro, horixe da nire dirusaria.

Nia 1ek txistu egiten du, dirutza izugarria dela erizten dio.

Hector: Ez dut hainbeste diru une honetan...

Carla: *(50 euroak kajoian gordetzen dituen bitartean)* Tira, orain baduzu itzultzeko arrazoi on bat, 30 euro zor dizkidazu.

Nia1: Jakina itzuliko garela. Tira, Hector, ez hadi izan kaikua.

Hector: Joan beharra dut.

Carla: Ongi da, nik ez dizut eragotziko.

Hectorrek eskua eman eta badoa kalerantz.

Nia1: Tira, Hector, ematen dik honek ere ezingo hauela lagundu. Hire familia bakarra izaten jarraitzen diagu.

Badoaz. Carlak esku ahurra bekokira eraman du berriro, buruko minak hortxe darrai, temati. Badoa barrura. Nia2 bueltan dator, isilean, eta kajoitik 50 euroak bereganatu ditu. Atzetik Hector eta Nia1 datoz.

Hector: Jakin al daiteke zertan ari haizen? Uztak hori bere tokian eta goazemak.

Nia2 ez du amore ematen eta dirua sakelean sartu du.

Hector: Ezin diagu horrelakorik egin, ez da bidezkoa!

Nia1: Zer axola diok, itzuli egin behar al haiz ala?

Hector: Ez zagok ondo.

Hectorrek bere sakeletik 50 euroak atera eta kajoian sartu ditu. Kanporako bidean sartu berri den Estirekin egiten dute topo.

Esti: Hector.

Hector: (*Urduri*) Banindoan. Oraintxe bertan joaten ari nintzen. Oraintxe, oinez, lasai lasai.

Esti: Zer moduz amarekin?

Hector: Ondo, oso ondo.

Nia1: Zoragarri, alde ederra, moñoña!

Esti: Pozten naiz.

Nia1: Esaiok oso guapa dagoela. Esaiok!

Hector: Joan egin behar dut.

Esti: Ederki.

Hector eta beste biak desagertu aurretik...

Esti: Hector.

Hector: Bai?

Esti: Zergatik erabaki zenuen nigana etortzea eta ez beste edozeinengana?

Hector: Konfidantza ematen zenidalako.

Esti: Nola baina, ezagutzen ez banauzu?

Hector: Ezagutzen zaitut.

Esti: (...)

Hector: Psikologia fakultatean ezagutu zintudan.

Esti: Ez dut gogora...

Hector: Normala da, asko ginen gelan eta ni ikasturte bat bakarrik egon nintzen han. Baina nahikoa izan zen zu ezagutzeko.

Esti: Horregatik egiten zitzaidan ezagun zure aurpegia...

Hector: Garai hartan ilea beste kolore batekoa zenuen. Atzean batuta eramaten zenuen... Gogoan dut iluntasunari diogun beldurraz egin zenuen lana. Bikaina izan zen.

Nia1: Aspergarria.

Hector: Bikaina izan zen.

Nia1: Aspergarria.

Hector: Bikaina.

Nia1: Aspergarria.

Hector: ¡Bikaina!

Nia1: Aspergarria.

Esti: Ez zen izan aspergarri samarra?

Hector: Ezetz ba!! (*Damututa*) Inola ere ez. Eta orain aste bi zure izena telefono zerrendan ikusi nuenean...deitu egin nizun.

Esti: Hara...Zera, ba, berriro ere elkar ikusiko dugu, ez ta? Amarekin hasi zarenez...

Nia1: Monjatxuak ez zakik ez duala itzultzeko inolako asmorik.

Hector: Noski, ikusiko gara.

Agurtu eta badoa Hector bere bi "lagunekin". Esti bakarrik geratu da, unibertsitateko garaiak gogoratu nahian edo.

Ama agertu da.

Carla: Irten egin behar dut. Argitaletxekoekin bilera dut, Jaimek azkenean erabaki du iluntasunari buruzko nire lana argitaratzea.

Esti: Gai interesgarria da.

Carla: Zuk eman zenidan ideia, gogoratzen?

Esti: Ideia bat baino zertxobait gehiago eman nizun...

Carla: Jakina, gaitasun harrigarria duzu tesi on bat argudiatzeko, baina ez zara gauza hura garatzeko. Nire liburuak irakurri beharko zenituzke, inoiz ez duzu egiten eta horrela doakizu.

Esti: Guztiak irakurri ditut.

Carla: Jakin ahal daiteke zer duzun?

Esti: Ezer ez, ez zait ezer gertatzen.

Carla: Etenik gabeko depresio batean murginduta bizitzea ez da osasunarentzat batere komenigarria, maitea. Gaurko gazteek berandu baino lehen zera ikasi behar duzue: ezin direla helburu guztiak lortu eta arrakasta lortzea, norbere printzipioei uko egitea dela. Badakit egia gordinegia dela, baina...egia da.

Esti: Sekula ez zaitu depresioak harrapatu? Ez duzu inoiz izan erotzeko beldurrik?

Carla: Bazkal ordurako itzuliko naiz. Zer prestatuko duzu?

Esti: Entsalada bat egitea pentsatu dut, eta gero arraina.

Carla: Ez egin labean, sikatu egiten zaizu.

Esti: Zer moduz Hectorrekin?

Carla: (...) Nahiago nuke itzuliko balitz, baina ez dakit ba...oraindik ere berde samar dagoela uste dut. Inoiz ez dut berea bezalako kasurik ezagutu. Izakera ezberdin guztiak bata bestearen gainean pilatzen zaizkio erreztasun harrigarri batekin. Gogorra behar du izan.

Esti: Eta ez diozu lagundu behar?

Carla: Nola lagundu laguntza ukatzen duen horri?

Carla badoa. Estik kopa bat ardo atera du eta trago bakarrean edan du. Kopa bigarrenez betetzen du..

Iluna.

Parkeko bazter batean gaude orain. Banku bat dakusagu. Hector eta bere Niak datoz, garagardo botila bana eskuan, mozkortuta hirurak. Hectorrek aurpegiara serioa du. Hector eseri da bankuan nola edo hala. Bere ondoan Nia 2 eseri da. Nia 1ek zutik darrai.

Nia1: Eutsi goiari, Hector, hobe duk horrela. Gu biok ederto gaudek, elkarrekin goxo goxo... Tira, hirurok. Familia bat ematen diagu. Bazekiat noizean behin liskarren bat edo beste izaten diagula, baina ze familiatan ez zagok horrelakorik? Poztu hadi, tira, gozak beste taberna batera barrua berotzera. Toki hau deprimentea duk. Zergatik ez diagu bozkutzen? Zer iruditzen?

Hector: Itxizak ahotzar hori, behingoagatik!

Nia1: Bale. (...) Hemen gaudenez, zergatik ez diagu kantuan egiten? Zorte pixka batekin sos batzuk irabaziko ditiagu. Izan ere, soto beltz horretan ordaitzen diatenarekin...

Hector: Hitz egiten segitzen baduk, ibaira egingo diat salto.

Nia1: Bale. (...) Zenbat gradu izango dizkik urak?

Hector ziztu bizian zutitu da eta eszenatoki ertzera abiatu da. Eszenatoki azpian ibaia dago.

Nia1: Ze, zertan habil? Ze ero haizek jo hau?

Hector: Egin egingo diat.

Nia1: Hi, hi zeharo mozkortuta hago.

Hector: Hobeto horrela, ez nauk enteratu ere egingo.

Nia 2-a zutitu eginda, kezkatuta, benetan egingo duelakoan beldurrez.

Nia1: Hi,hi, itxaronzak, ez baduk nahi tabernara joatea ez gaituk joango eta kitto!

Hector: Ezin diat gehiago.

Nia1: Hi, hi...

Hectorrek buelta hartu eta Nia1 uxatzen du.

Hector: Ospa, hoa hemendik, ez hurbildu!

Nia1: Lasai, gizona. Ezin diguk horrelakorik egin.

Hector: A ez?

Nia1: (...) Ongi duk, egizak behingoz, bota hire burua ibaira. Pikutara guztia! Akabo bizia, akabo musika, akabo hire bihotzeko Klara, popatik!

Nia2: (*Nia1-i*) Zertan ari haiz?

Nia1: Estrategia ezberdinak frogatzen.

Hectorrek pauso bat eman du aurrera.

Nia1: Ezzzzz! Mesedez, Hector.

Tentsioz betetako isilunea egin da. Hector, azkenean, ez da gauza bere buruaz beste egiteko. Negarrez hasten da.

Nia1: Banekian, koldar hutsa haiz.

Nia2 Hectorrengana hurbildu eta besoa jarri dio gainean, lagunkiro.

Hector: Arrazoi dik. Hutsaren hurrengo naiz.

Nia2: Inola ere ez. Ez egin kasurik kaiku horri.

Hector: Hala duk bai, ez diat ezer balio, gorroto zioat nire buruari.

Nia2: Et, et...Tira, lasai, pasa duk, pasa duk.

Hector: ¡Bakarrik nagok mundu puta honetan!

Nia2-k beso artean hartu du eta Hector negar intzirika ari da. Nia biek elkarri begiratzten diote.

Nia1: Hi, hi...gu hirekin gaozak. Hi...behin esango diat, eta hauxe azkena, hi tipo jatorra haiz.

Nai2: Bai horixe.

Nia1: Hik bihotza handia duk, bihotz onekoa haiz, eta horrek asko balio dik. Hara, aitortu diat. Zer duen mozkortuta egoteak, putasoria!

Hector: Arrazoi duzue. Zuek zarete nere benetako lagun bakarrak.

Nia1: Hori duk eta.

Hector: Beti nire alboan.

Nia1: Halaxe duk, ezkondutakoak bezalatu, zorionean eta atsekabeen...

Hector: Aupa zuek. (Nia2-ri) Aupa hi. Hi, hi ez dakit nondik agertu haizen baina asko estimatzen haut, jakinzak.

Nia 2: Nik ere bai hi.

Emozioak jota besarkatu dira.

Hector: Hau duk pixa larria.

Nia1: Bai, gizona.

Hirurak ertz batera joan eta txiza egiten hasi dira.

Esti agertzen da. Hector neska ikusi bezain laster txoritxo zuloan sartu eta badoa neskaren parera. Besteek txiza egiten jarraitzen dute.

Hector: Esti.

Nia1: Hara bestea...

Esti: Hector...Nola zaude?

Hector: Ondo. Eta zu?

Esti: Apur bat mozkortuta.

Nia1: A ze mozkor kuadrila!

Nia2-k ere bukatu du txiza egiteaz. Besteak oraindik ere berean jarraitzen du.

Esti: Leku hau atsegin zenuela esan zenidan eta...

Nia1: Oraintxe dik aukera ederra, Hector.

Esti: Ez nuen egin behar baina...bizpahiru kopa edan ditut.

Nia1: Hiruzpalau, laupabost...

Esti: Eta ardoak kalte egiten dit.

Hector: Niri gauza bera gertatzen zait. Behin taberna batetik atera ninduten indarrez, hanburgesak egiteko katu haragia erabiltzen zutela frogatu nahi izan nuelako.

Esti: Eta? Egia zen?

Hector: Ez, arratoi haragia erabilzen zuten.

Esti: (...) Ez nago batere ondo.

Hector: Txantxetan ari nintzen...Egia bakarra zera da, taberna hura ez zela taberna, arraindegia baino. Eseri nahi duzu?

Esti: Bai, eskerrik asko.

Esti bankuan eseri da. Beste hirurak haren aldamenean eseri dira, Nia1 ere bai, azkenean bukatu du eta pixa sesioa.

Nia1: Utzi hizketaldia eta emaiok Hector! Mozkortuta bazagok bihar ez dun eta ezertaz gogoratuko.

Esti: Benetan gustatu zitzazun unibertsitateko nire lana?

Hector: Bai, asko, erabat asmatu zenuela uste dut.

Esti: Zuk ere beldurra zenion iluntasunari umetan?

Hector: Tira... ez zen beldurrik okerrena: Ablutofobia ere banuen...

Esti: Bañoa hartzeko beldurra.

Hector: Eta baita agirofobia ere...

Esti: Kalea zeharkatzeari beldurra.

Hector: Alectrofobia...

Esti: Beldurra zenien oiloei?

Hector: Batek mokoka egin zidanetik bai. Anuptafobia ere banuen...eta badut.

Esti: Bakardadeari beldurra. Beldur hori guztiok dugu barren barrenean sartuta.

Hector: Atomosofobia...

Esti: Zer da hori?

Hector: Eztanda nuklearren beldur nintzen.

Esti: Hara.

Hector: Belonefobia...

Esti: Orratzei beldurra.

Hector: Bacilofobia...

Esti: Microbioei.

Hector: Claustrofobia...

Esti: Niri ere izugarritzko beldurra ematen zidaten toki itxiek.

Hector: Escolionofobia...

Esti: Eskolara joateari beldurra.

Hector: Joateari baino bertan egoteari. Escotomafobia ere banuen...

Esti: Zergatik zenion beldurra itsu geratzeari?

Hector: Hori oraindik ez dut gainditu. Egia esan gutxi batzuk gainditu ditut. Adibidez, dagoeneko ez diot beldurra hegazkin batean sartzeari, batez ere berriro hegan ez egitea erabaki nuenetik... Gimnofobia ere banuen...

Esti: Txikiegia duzu ala? (...) Barkaidazu.

Nia1: Zergatik aitortu diok hori?

Hector: Hipopotomonstrosesquipedaliofobia...

Esti: Hipopotomo... zer?

Hector: Hitz amaigabe eta konplikatuak oker ahozkatzeko beldurra.

Nia1: Jode, Hector, sorpresaz beteta hago.

Hector: Jasan nuen okerretako bat Maieusiofobia izan zen.

Esti: Haurdun geratzeko beldur zinen?

Hector: Mutikotan bai, orduan ez nekien gizonok ezin dugula haurrik eduki.

Nia1: Hi haiz ergela, hi...

Hector: Gogoan dut gansterrei ere beldurra niela, eta txinatarrei, eta bizirik lurperatua izateari.

Nia1: Zerrenda polita, orain emaiok musu, kaiku horrek eta laga babukeriak beste baterako.

Esti: Nola deitzen zen amari diogun beldurra?

Hector: Ez dut gogoratzen.

Nia1: Emaiok musu, alu horrek.

Esti: Nik gorroto diot amari.

Nia1: Kaka, pikutara lardaskan ibiltzeari.

Esti: Barkatu, ez nuke halakorik esan behar. Ez da egokia, ez dakit zerek bultzatu nauen... Nire amak lagundu zaitzake, hori egia borobila da... Agian terapiara ez zarela itzuliko uste du, egia al da? Ez egin halakorik, Hector. Ez utzi bertan behera terapia, errudun sentituko nitzateke, eta dagoeneko errudun sentimenduak gainezka egin dit. Gaindituko duzu!

Hector: Zergatik diozu gorroto?

Esti: (...) Denagatik...eta enbidia diodalako. Emakume interesgarria da, gogorra, ez dago hura kokilduko duenik...Edozein buruhausteri egin diezaioke aurre eta inoiz ez diot kexu bakar bat ere entzun. Eta hori da jasanezina egiten zaidana. Ez du inoiz amore eman, ez nire aurrean behintzat. Beti pentsatu izan dut erabili egin nauela, baina orain ulertu dut ni ere berataz baliatu naizela beti. Ezingo nuke bera gabe bizi. Ez nuke jakingo nola egin.

Nia1: Ederra sesioa, zer moduz 50 euro kobratzen badizkiok?

Hector: Nahikoa duk!!

Esti: Barkaidazu, ez zintudan molestatu nahi.

Alde egiteko asmo sendoz zutitu da Esti.

Hector: Ez, ez dizut zuri esan...Egia esan...beste hauek dira...Ahots hauek...

Esti: Oker egin dut, ez nizun ezer kontatu behar...

Hector: Jakina baietz, atsegin dut zuri entzuten egotea, atsegin dut zuri entzuten egotea...atsegindut zurekin egotea.

Nia1: Hara, Hector, harrituta utzi nauk.

Carla: Terapiarekin jarraitu dezazun eskatzera etorri naiz solik.

Hector: (...) Zera, nik...

Esti: Ahotsak...ozen entzuten dituzu ezta?

Hector: Nik ez dut uste...

Esti: Eta zer esaten dizute?

Nia1: Musu emaiok ospa egin aurretik.

Hector: Zera...zera diote...zuri musu emateko.

Esti: (...) Etxera itzuli behar dut.

Esti badoa.

Nia1: Azkarregi ibili haiz Hector, horixe duk hire akatsik larriena, ez duk pazientziarik.

Hectorrek sakeleko telefonoa hartu eta deia egin du. Carlaren etxea argiztatu da. Hango telefonoa joka hasi da. Carla etxean sartu eta telefonoa hartu du.

Carla: Bai, esan?

Hector: Hector naiz. Hector Martín. Hector, aulkian egoten dena...zera dibanean...

Carla: Hector, zer moduz zaude?

Hector: Sentitzen dut goizean gertatutakoa.

Carla: Edan egin duzu?

Hector: Ez!...Bai, apurtxo bat.

Carla: Ongi al dago txakurra?

Hector: Txakurra? Bai, primeran, ezin hobeto.

Carla: Edo katua al zen?

Hector: Bai, bai, horixe bera, katua da, baina hain da handia...batzutan zaunka egiten du. Albaitariek ez dakite zer egin harekin.

Carla: Ia.

Hector: Bihar hartuko nauzun jakin nahiko nuke...

Carla: Noski baietz, baina gezurrak esaten tematzen bazara, ezingo dizut lagundu.

Carlak telefonoa eseki eta irrifar maltzurra egin du.

Nia1: Banekian nik katuaren kontu horrek ez ziaala ezer onik ekarriko. Gezurrak buztana labur...hik bezala. Kar, kar, kar...

Hector eta beste biak badoaz. Arreta Carlaren etxean jartzen dugu orain. Emakmeak dei bat egin du telefonoz.

Carla: Kaixo, Jaime. Neu naiz. San Frantziskora joateko aukera badago ez ta? Ni han egotea lortu behar duzu. Ponentzia bat aurkeztuko dut. Tira, Jaime, ez da hain zaila izango... Ez dizut ezer aurreratuko, rara avis horietako bat da. Aho zabal utziko ditugu guztiak. Primeran. Deitu idazu. Ciao.

Denboak aurrera egiten du.

Norbait ate joka ari da. Clara agertu da pijama soinean jantzita. Ateazabaldu du. Hector eta bere Niak badatoz barrura.

Nia1: Hara, pijamarekin politago zagok gure neskatila.

Hector: Agian goizegi etorri naiz?

Esti: Ez, ez, hemen zaudela esango diot amari. Pozten naiz itzultzea erabaki duzulako.

Hector: Zuk eskatu zenidalako egin dut.

Esti: Hector, sentitzen dut atzoko...zera nik...Apu bat lotsatuta nago.

Hector: Ez, nik eskatu behar dizut barkamena, inozo baten jokaera izan nuen. Egia esan beti jokutzen dut inozo baten pareko eta horrek azalpen bakarra du eta zera da: inozo bat naizela.

Nia1: Ze ondo saltzen duan hire burua, konpañero. Lanean gertatutakoa kontatzea falta duk orain.

Esti: Ezda egia, ez zara inozoa.

Nia1: Gezurra dion.

Esti: Amari abisatuko diot.

Esti badoa.

Nia2 sofa gainean aurkitu duen Estiren zapi bat hartu eta hura usaintzen ari da.

Hector: Zertan ari haiz, burugabe hori?

Nia 2-k ez dio zapia eman nahi eta ihes egiten du. Hector haren atzetik hasi da zapia eskuratu nahian. Bitartean, Nia 1 sofan etzan da eta pozarren begiratzen dio eszena dibertigarriar. Halako batean, Hector ama datorrela ohartu da. Eta birritan pentsatu gabe Nia 2 aren gainera egin du salto, rugby jokalaria baitlitzan. Biak desagertu dira sofaren atzekaldean.

Carla: (Nia 1-i) Eroso zaude?

Nia1: Leku eskasagoetan egondakoa naiz, baina sekula ez zu bezain laguntxo politarekin. Zergatik ez zara nire ondoan esertzen, eder hori?

Carla: Non dago, Hector?

Nia1: Hector oraintxe bertan okupatuta dagoela esan genezake.

Carla: Tamala, nik bera bakarrik hartuko dudalako.

Hector sofa atzekaldetik agertu da, zapia eskuratzea lortu du. Bizkar atzean gorde du. Nia2a ere zutitu da.

Nia1: Tira, doktorea. Ez horrela jarri... Nik ergel horren gaineko datu gehiago eman al dizkizut.

Carla: Esaterako?

Nia1: Ba, adibidez, Hector zure alabarekin maiteminduta dagoela, zer iruditzen?

Carla: (...)

Nia1: Ez naiz harritzen zu haserretzea. Nik ere ez dut begi onez ikusten harreman hori. Hari musu ematen saiatu zen.

Hector: Kabroi madarikatua!

Carla: Nola dakit diozun hori egia dela?

Nia1: Ni han nengoelako. Hectorrek oso gusto txarra du. Nik nahiago zaitut zu.

Hector: Akabatu egingo haut!

Nia1: Hik ez huke eltxo bat ere akabatuko.

Carla: Norekin ari zara?

Nia1: Hectorrekin, hementxe dago.

Carla: Berarekin hitz egn nahi dut.

Hector: Entzun duk.

Nia1: Ondo da (*Keinu eta imintzioka hasten da. Gero hectorrenak eginaz*) Hemen nago jada.

Hector: Gezurra!!

Nia1: Ezin dut gehiago doktorea, zoratuko ote naizen beldur naiz. Zure laguntza behar dut.

Carla: Konforme.

Carlak mahaiko kajoi bat ireki eta hiru bat pastilla potetatik bat aukeratzen du.

Carla: Hauetako bi pastilla har ditzazun nahi dut. Oraintxe bertan.

Nia1: Zer duzu buruan?

Carla: Hector bazara eta nire laguntza nahi baduzu, hartu egin beharko zenituzke.

Nia1: (...)

Hector: Bai!!!! Deskubritu hau, zantar hori.

Nia1: Zergatik ez dugu lasai lasai hitz egiten? Esan al dizut zure alaba...

Carla: Ez zait gaia interesatzen, hartuko dituzu, bai ala ez?

Nia1: Ez naiz botika zalea. Botikak erepresoreak dira, gure beldur, lotsa,...(*Ez zaio besterik bururatzen*)...eta abarrak bezalaxe. Zer ba, gustoko duzu akaso zoologiko bateko gorila gaixoa drogatuta ikustea? Guztiok barrenean dugun animaliak libre izan behar du, zoriontasun osora iritsiko bagara. Ni neu oraintxe bertan zurekin larrutan egiteko amorratzen nago, hortxe lurrean, edo hobe mahai gainean...sofan beharbada? Badakit zuk ere gauza bera desio duzula.

Carla: Pentsatu al duzu agian ez dudala egin nahi?

Nia1: Desioa erreprimitu egiten duzulako.

Carla: Badago beste arrazoi bat: ez zaitut gustoko.

Nia1: Nire eskuen leuna probatu nahi duzu?

Hector: Aski duk!! Aski duk!!!

Hectorrek indarrez hartzen du Nia 1 eta sofatik aldentzen du, azkenik bere tokia hartuz.

Hector: Doktorea, eman, mesedez, pastilla horiek.

Carla: Zu al zara Hector?

Hector: Nire izena Hector Martín Gris da. Kolore gustukoena, urdina. Musika izugarri atsegin dut. 35 urte ditut. Abuztuaren 24ean jaio nintzen. Nire amak Felisa zuen izena eta aitak berriz, Juan. Ez dut aita ikusi azken bost urteotan. Sekula ez nuen pianoa jotzen ikasi. Nire amak zoragarrik jotzen zuen, aingeru baten pare. Baina behin, pianoa apurtu egin zen. Ama berak apurtu zuen, sokak banan banan erdibitu zituen. Eskuarekin apurtzea

lortu ez zituenak guraizaz ebaki zituen. Inoiz ez nuen jakin zergatik egin zuen. Ez dut anai arrebarik. Bakarrik bizi naiz alokatutako etxetxo batean. Pipak jatea gustazten zait. Gaur ez dut gosaldu. Nire izena Hector Martín Gris da. Ni naiz Hector, ni bakarrik!!

Bakarrizketaren azken partea bi Ni-ek abestutako kantu erromantiko eta burlati batek lagunduta egin du.

Nia1: Zera ahaztu zaik esatea: hire nagusi pinpirina izaten dela fantasietako protagonista kanpaia jotzen duanean.

Carlak pastillak eman dizkio eta Hectorrek irentsi engin ditu biak.

Nia1: (Teatroa eginez) Ahhh! Zergatik egin duk? Nireak egin dik, bihotz taupadak isildu egin dituk, ai ene, ai...Ez nian halakorik merezi... (Normal) Hara, ez diat ezer sentitzen eta...Aspirinak eman dizkik ala?

Carla: Eseri, Hector.

Hectorek hala egiten du. Nia2 era eseri da Nia-en aldamenean.

Carla: Hobeto zaude?

Hector: Ez dakit.

Carla: Hartu arnasa. (...) Lehen aldia da laguntza psikologikoa eskatzen duzuna?

Hector: Bai.

Carla: Zergatik ez duzu lehenago egin?

Hector: Lotsa ematen zidan, eta bedurra, pudorea, badakizu, ikaratuta nengoen, ezin erabakita, apuroa ematen zidan, izua, kokilduta nengoen, zalantzak nintuen, segurtasun falta nuen...Sendatuko naiz?

Carla: (...) Saiatuko naiz.

Hector: Zer eman didazu?

Carla: On egingo dizun botika bat, hala espero dut behintzat. Baina entzun ondo, zuk terapiarekin segitzea nahi dut eta beraz, kontsultara etortzen jarraitzen baduzu bakarrik emango dizut.

Hectorrek bere Niei begiratu die eta biek lo hartu dutela ohartu da.

Carla: Ongi al zaude?

Hector: Baietz uste dut.

Carla: Primeran. Nire alabaren oharren arabera, taberna batean abesten zenuen.

Hector: Bai.

Carla: Eta gustoko zenuen.

Hector: Erabat.

Carla: Nriere gustatzenzait kantuan egitea...Zergatik ez duzu zerbait abesten?

Hector: Ez dakit...Arraro samar sentitzen naiz.

Carla: Ia. Ez kezkatu. Zure familian jasan al du norbaitek zuk duzun arazo bera?

Hector: Nire amak klinika batean egin zituen hilabete batzuk.

Carla: Ia.

Hector: Harek ere ahotsak entzuten zituela uste duzu?

Carla: Ez dakit.

Hector: Harek ere asko atsegin zuen kantuan egitea.

Hectorrek amak umetan abesten zion kantu bat abesten hasten da.

Carla: Ze polita.

Hector: Ez dut ondo egin, ez dakit zer dudan. Zer eman didazu?

Carla: Ez kezkatu horregatik.

Hector: Baina...

Hectorrek berriro ere begiratu die bere Niei, lotan jarraitzen dute.

Carla: Ongi da Hector, gauza bat argi utzi behar dugu. Nire gauzek, nire bizitzako gorabeherak ez dute inolako garrantzirik, ezin dut eta ez dut nahi haietaz hitz egirerik. Eta nire bizitzaz ari naizenean alabaz ere ari naiz. Ez duzu harekin inolako harremanik eduki behar. Zure arazoa soilik da aztertu behar duguna, bestela, denbora galtzen ibiliko gara. (...) Adibidez, zure arazoak izan du eraginik zure kontable lanean?

Hector: Baietz esango nuke.

Carla: Baietz?

Hector: Nahikotxo.

Carla: Zer esan nahi du “nahikotxo” horrek?

Hector: Kalera bota naute.

Carla: Hara, sentitzen dut. Zer gertatu da?

Hector: Tira... Sute txiki bat piztu nuen.

Carla: Sutea?

Hector: Ez zen nire errua izan, hoiek izan ziren (*Niei begiratu die*)

Carla: Hoiek?

Hector: Badakizu, beste horiek... ahotsak.

Carla: (...)

Hector: Nagusiak txosten pare bat erretzeko agindu zidan... Ez dakit gai honi buruz hitz egin beharko nukeen.

Carla: Hemen esaten duzun guztia bion arteko sekretua izango da.

Hector: (...) Enpresa bateko pare bat txosten ziren. Haiak erre beharra zegoen. Baina... ahotsak zoratu egin ziren sua ikustean, suak mozkortu egin zituela zirudien, ezin izan nien eutsi, hura akelarrea! Guztia erre zuten.

Carla: Guztia?

Hector: Bulegoko artxibategi osoa, solairu osoko artxibo guztiak. Ez zen txosten bakar bat ere libratu.

Carla: Jainko maitea.

Hector: Ez dio axola, gorrotu nion lan horri.

Carla: Aske sentitzen zara orain?

Hector: Zera sentitzen naiz batez ere... behartsu. Ez dakit nola iritsiko naizen hil bukarerara.

Carla: Zergatik ez zara saiatzen abesten? Oso da inportantea benetan maite dugun horrengatik apustu egitea. Ez al zinen zoriontsuago abesten zenuenean?

Hector: Baliteke, bai. Egin beharko nukeela uste duzu?

Carla: Erabaki hori zuk hartu beharrekoa da.

Hector: Egia esan, ezagutzen dut abeslari berriak behar dituen lokal bat...

Carla: Tira, horra ba aukera...

Hector: Agian saiatu egin beharko nintzateke.

Carla: Zer duzu ba galtzeko?

Une horretan bertan, argi zenitala piztu da proszenioko ezker aldean. Off eran entzungo dugu aurkezlearen ahotsa:

Aurkezlea: "Jaun andreok, amaitzeko sorpresatxo bat dugu zuentzat, ahots berri bat, erromantikoa, zuon guztion gozamenerako, aukera bikaina bikotekidearekin dantzan egiteko, eta berak nahi ez badu, eskatu lagunaren bikotekideari, normalen gustokoago izate dugu eta. Zuekin, Hec Mártin!"

Hector mikrofono aurrean jarri da. Urduri dagoela antzematen zaio. Abestiaren lehen akordeak entzute hasten dira. Hasi da Hector kantuan, baina eskas samar ari da. Txisturen bat edo beste entzun da. Halako batean, Hector mututu egiten da. Txistuak areagotu dira. Musika isildu da. Hector zer egin ez dakiela dago, derrepente desagertzea nahiko luke.

Eskuak burura eramán ditu, burua lehertu beharrean du. Egoera jasanezina da. Baina, bat batean, bere begirada eraldatu egiten da. Keinua egin du musika berriro ere jotzen hasi dadin. Bere bi Niak agertu eta ezker eskuin jarri dira. Oraingoan hiru ahotsean egiten dute kantuan, abestiari intentsitate berezia gaineratuz. Txistu hotsak isilduz dihoaz, erabat isiltzen diren arte. Abestia bukatu eta segundu gutxiren buruan txalo zaparrada izugarria entzuten da, apurka apurka urruntasunean galtzen dena.

Hector: A ze arrakasta!

Nia1: Hobetu zitekean.

Hector: Hobetu? Txantxetan ari haiz.

Nia1: Jakina. Baina ez duk berriro errepikatuko.

Hector: Zer esan nahi duk?

Nia1: Gureki akabatu nahian segitzen baduk, ez diagu lagunduko. Ez ta, hi?

Nia2-sorbaldak altxa ditu. Hector zer esan ez dakiela geratu da.

Nia1: Gure beharra duk, ez al haiz konturatzen?

Une horretan bertan Esti agertu da kopa bat eskuan duela.

Esti: Hector, zoragarria izan da, liluragarria.

Hector: Esti.

Esti: “Hec Mártin”, izen aproposa. Banekien zu izango zinela. Pozten naiz berriro kantuan hasi zarela, zure kontable lan hori utzi egin beharko zenuke.

Hector: Bai, zera...egia esan...

Nia1: Ez esan kalera bota hautela, Hector, etzak hanka sartu, orain ez, kontro!

Esti: Horixe da nire abesti gogokoena, bazenekien?

Nia1ek Hector bere lekutik kendu eta hura zegoen tokian jarri da mugimendu azkar batez. Nia1 neskaren aurrean dago orain, karin karan, eta hitzik esan gabe musu eman dio ezpainean.

Hector: Baina ze arraio...?

Nia1ek neskari musu eman ondoren leku egin dio Nia2ri eta honek ere musu eman dio neskari.

Hector: Ze arraio egiten ari zarete?!?!Zoratu egin al zarete?!?!

Nia1: Hiri laguntzarren ari gaituk, ergel halakoa! Nik nahiago diat ama.

Nia2k musu luzea eman dio Estiri.

Nia1: (*Nia 1-i*)Nahikoa diagu, hi! (*Hectorri*) Ea, hire txanda duk.

Nia1-ek Hector hartu eta neskaren parera eraman du. Hectorrek ere musu eman dio

Esti: Hector...Ni...

Hector: Barkaidazu, nik...

Esti: Ez, ez, ez... ez eskatu barkamenik, ez eskatu barkamenik, ez esan sentitzen duzunik...

Estik beso artean hartu du mutila eta orain bera da musu ematen diona Hectorri.

Nia1: Eta gutaz libratu nahi zian, alu honek.

Esti: Zatoz, goazen hemendik.

Estik eskutik hartu du Hector eta berarekin darama. Beste biak atzetik.

Neskaren etxean sartu dira. Guztiak.

Hector: Ziur zaude ez dagoela inor?

Esti: Esan dizut, ama antzokian dago.

Estik musu eman dio Hectorri irrikaz. Nia 1 eta Nia 2 biluzten hasi dira.

Nia1: Momentu hau ez zela inoiz iritsiko sinistuta nengoan. Tira, hi lana diagu.

Nia1 eta Nia2 ere hasi dira neskari laztanak eta zirriak egiten, eta baita hura musukatzen ere.

Esti: Hector...a ze, a ze...ederki ari zara. Jainko maitia!!

Laurak sofán ari dira jo eta su, su eta gar, gartsu. Baina, bat batean, Hector ohartu da beste biak ere saltsa berean dabilzala eta geratu egiten da.

Hector: Ez, horrela ez, horrela ezin dut.

Niek ere eten dute sexu zalaparta.

Esti: Zer duzu, Hector? Dena ongi dago, primeran...zoragarri...

Nia1: Hi haiz hi ergela..

Hector: Ezin dut, horrela ez.

Esti: Ez duzu kondoirik? Nire amak edukiko ditu, seguru. Bila noa.

Hector: Ez, ez, ez duzu ulertzen.

Nia1: Kaka zaharra!

Esti: Zer da ulertu behar duidana? Atsegin ninduzla uste nuen...Ai ene, erratu egin al naiz?

Hector: Ez, ez zara erratu, inola ere ez, atsegin zaitut, asko, atsegin zaitut. Egia esan bizitza osoan behin bakarrik maitemindu naizela uste dut eta zurekin izan da.

Esti: (...) Orduan?

Hector lehenago Carlak emandako pastillen bila hasi da. Kajoiak zabaltzen hasi da, urduri, trakets.

Esti: Zerta ari zara?

Nia1: Hector, ez gu izorratu, utziguk festan parte hartzen! Neska pozez zorutzen zagok, ez al haiz konturatzen?

Esti: Hector, zeren bila zabilta?

Nia1: Higatik egiten diagu, baietz hi?

Nia2-k sorbaldak altxa ditu. Hectorrel azkenean aurkitu du bila zebilen potea.

Hector: Kaka, bakarra geratzen da.

Esti: Hector!

Nia1: Aurrera, babu hori, hori duk nahi dukena, interesik gabeko pertsona bat izan, grisa eta aspergarria? Hori nahi duk? Beste edozein bezain tristea bihurtu?

Hectorrek pastilla irentsi du. Estik esku artean hartu du potea.

Hector: Zure amak pastilla hauek eman zizkidan...lagundu egiten diate.

Estik arretaz aztertzen du potea.

Nia1: Lelotuegiten haute, zeharo ergeldu...

Hector: Lagundu egiten didate!

Nia1: Orain ez zaik altzako. Lotsagarria haiz.

Hector: Ahotsak isilarazten ditu botikak.

Nia1: Patetikoa haiz. Hire burua ikusi beharko huke. Esti damututa egongo duk hi etxera ekarri izanagatik, apustu egingo nitek.

Esti: Barkaidazu, nire errua izan da... ez zintudan hona ekarri behar.

Hector: Ez, etzazu hori esan.

Nia1: Ikusten? Nik arrazoi.

Hector: Zu pertsona...zoragarria zara, ez dut sekula zu bezalako inor ezagutu. Ezin zaitut burutik kendu. Lo hartzea ere kosta egiten zait. Eta gainera, zera...esne goxotuaren zaporea daukazu eta...

Nia1: Bai, hara bestea, piña kolada zaporea, no te jode!

Hector: Eta ez dizut minik egin nahi. Hain hauskorra dirudizu... Edozerrek egin diezazuke min, edozelako txikikeriak arima zeharkatu ahal dizu, labana zorrotz batek egingo lukeen pare. Baina era berean, edertasuna bere osotasunean barneratzeko gai zara, zuzenean doakizu bihotzera. Badakizu gauza ederrak gozaten barren barrenean sentitzen dituzulako. Ez al da egia? Eta horrek ematen dizu aurrera egieko indarra, horregatik badakizu bizirik jarraitzeak merezi duela. Horixe da duzun dohairik preziatuena.

Nia2-a lo geratu da.

Nia1: Joder, Hector. Une honetan animalia baten pare txortan egon beharko huke eta hik, alu horrek, nahiago dik psikologo lanetan hasi. Hi hai hi... *Pertsonaiak keinuka jarraitzen duen arren ez da ezer entzuten, norbaitek bolumena jeitsi egin balio bezala ari da)*

Hectorrek Nia1-i begiratu eta irrifar egin du.

Hector: Pasa da.

Esti: Ez zenuke hemen egon behar, neurekoi burugabe baten antzera jokatu dut.

Nia1 lurrera jausi da, ziplo. Une horretan bertan ama sartu da etxean.

Carla: Zer ari da gertatzen hemen?

Estik eskuan duen pastila potea azkar asko ezkututzen du.

Esti: Ama! Ni izan naiz, neronek gonbidatu dut Hector etxera, zera...

Carla: Negar egin duzu?

Esti: Ez, nik...

Hector: Ni banindoan...

Carla: Hobe izango da, bai.

Hector: Bai, jakina...noski.

Esti: Baina ama...

Carla: Inozo halakoa, ezin dugu gure pazienteekin inolako harremanik eduki, ondotxo dakizu! Zuk uste duzu horrela lagunduo diozula?

Hector: Ez da bere errua izan. Egia esan ez da inoren errua izan...atea zabalik zegoen eta zu antzerkia ikusten eta... Gainera, ez da ezer gertatu, gauza berotzen hasi da, egia...baina gero eten egin dugu. Geratu egin gara. Orain bizitzaz ari ginen hizketan, bizitzako gorabeheraz badakizu, sexu konturik bat ere ez!

Carla: Hector, mesedez, ez okertu gauzak. Hemendik alde egitea erregutzen dizut.

Hector: Banoa bai. Baina, zera...banoa, bai.

Badoa. Esti zutitu egin da sofatik.

Carla: Nora zoaz?

Esti: Kanpora.

Carla: Nola?

Esti: Ondo ulertu badut, Hectorrek zure paziente izateari utzi dio. Orain beraz, eduki dezaket harekin nahibesteko hartuemanik, ez ta?

Carla: Ederra laguntza zurea! Erabat oker zaude, maitea. Maitasunak ezingo du zure laguntzua sendatu, maitasunak petrikilo faltsuek saltzen dituzten edabe miragarriek adinako indarra du, sinetsi idazu.

Esti: Niri bost zure eritziak.

Carla: Jainkoarren txikitxo, nerabe burugabe baten antzeko ari zara. Hectorrek arazo larria du, eta zuk ederki dakizu hori.

Esti: Eta nork ez du ba?

Carla: Zuk bai behintzat... Zera uste dut, berataz baliatzen ari zarela niri traba egiteko, eta estrategia hori absurdoa bezain arriskutsua da.

Esti: Edozein mutilekin harremanetan hasten naizen bakoitzean gauza bera esaten didazu, ohartzen zara? Zergatik uste duzu guztiak zurekin zerikusia duela?

Carla: Ezagutzen zaitudalako.

Esti: Joan egin behar dut.

Carla: Itxaron.

Esti: Apropos ari zara niri denbora galdu arazten.

Carla: Inola ere ez. Hectorrek nire pazientea izaten jarraitzen du eta hori horrela den bitartean, ez duzu harekin inolako harremanik edukiko. Inolako harremanik!

Esti: (...)

Carla: Ez dut kasua bertan behera utziko. (...) Dutxa bat hartzera noa. Ez dakit nork egiten zuen izerdi gehiago antzokian, aktoreek edo aldamenean nuen emakumeak.

Badoo. Esti sofán eseri da, etsita. Halako batean, pastila potea eskuan hartu eta pilula bat hartu du.

Ilun.

Gomera doktorea Hectorrekin, eta berak jakin gabe, aurrez grabatutako sesioetako bat hari da ikustatzen. Oraingoan, hectorren papera egiten duen aktore bakarrik ikusiko dugu.

Carla: Esaidazu, noiztik entzuten dituzu ahots horiek?

Hector: Badira urte batzuk, hogeita bi urte nituenetik uste dut.

Carla: Ze eratako ahotsak dira, zer esaten dizute?

Hector: Hain...hain dira benetakoak...Beti gainean ditut, ez dago haiek isiltzeko modurik.

Carla: Une honetan entzuten dituzu?

Hector: Bai.

Carla: Eta zer esaten dizute?

Hector: Ba zera...

Hector: Ba... koldar bat naizela diote.

Carla: Iraindu egiten zaituzte?

Hector: Etengabe.

Carlak aurrera eragin dio zintari, bera aspirina baten bila joaten den punturaino.

Badoa Carla. Hector, adeitsu, zutitu egin da. Gero eseri egiten da azkar.

Hector (Nia1): Ez diat nahi doktore dotoreak honek gu ergeltzat hartzerik.(...) Ez diat horrelakorik egingo.

Hector dardar exajeratu batean hasten da.

Ama dator bueltan.

Carla: Tira, hemen nago beriro ere. (...) Zera esaten ari zinen, entzuten dituzun ahots horiek iraindu egiten zaituztela.

Hector(Nia2): (...)

Carla: Ez al da horrela?

Hector(Nia2): (...)

Carla: Gaiaz aldatu nahi duzu?

Hector(Nia2): Zergatik duzu astelehena?

Carla: Astelehena?

Hector(Nia2): Biharamona...resaka.

Carla: Ez dut astelehenik, eta gainera, hala izanda ere nire gauzek ez dute garrantziarik, zugatik gaude hemen.

Hector(Nia2): (...) Ez litzateke oso profesionala astelehena izatea.

Hector dadar exajeratu batea hasi da berriro.

Carla: Ongi al zaude?

Hectorren dardara eten da. Baretu dela adirudi.

Hector(Nia1): Listo, ez da ezer izan. Batzutan burua bueltaka hasten zait eta... Pasa da.

Carla: Iruditu zait...

Hector(Nia1): Pasa da, polit hori.

Hector(Nia1): Badakizu? Egia esan ez zait inporta biharamona baduzu ere. Zure edertasunari ez dio inolako kalterik egin. Entzuten ditudan ahotsez hitz egiten jarraitzea nahi duzu?

Carla: Zuk hala nahi baduzu bakarrik.

Hector(Nia1): Molestia bat dira. Intimitatea betirako galdu dudala sinistuta nago. Ulertzen didazu ez da? Kanpaia jo ere ezin dut lasai egin.

Hector(Nia1): Nire sexu fantasiez hitz egitea nahi duzu?

Carlak grabaketa eten du. Alaba ondoan duela ohartu da.

Esti: Hectorrek badaki haren sesioak grabatzen aritu zarala?

Carla: Zergatik jakin beharko luke. Ezin hobeto dago horrela. Nire lanaren parte da, badakizu.

Esti: Zure lana?!

Carla: Ez zenuke lo egon behar?

Esti: Zer egiteko asmoa duzu horrekin? Zure kolega kuttunei erakutsiko diezu?

Carla: Ez zaizu liluragarria iruditzen?

Esti: Nazka ematen dit.

Carla: Tira, txiktxo, ondotxo dakizu San Franciscoko hitz ordua oso garrantzitsua dela niretzat. Mutil hori interesatzen zaizu, benetan?

Esti: Ez dut uste San Franciscon pazientearen baimenik gabe grabatutako ezer onartuko dutenik.

Carla: Haren baimena ez dudala lortuko uste duzu? Hector nahikoa beldurtuta dago nik proposatutako edozer ulertu eta onartzeko. Beldurrez bizi den pertsona buztin puska baten antzekoa da, edozer egin dezakezu harekin, nahi beste aldiz itxuraldatu.

Esti: Bera sendatzeko giltza duzula ere esango diozu? Eta nahita atzeratzen ari zarala tratamendua?

Carla: (...)

Esti: Badakit harekin erabiltzen ari zaren botikak lagundu ahal diola. Zergatik ez diozu behingoz errezeta egin eta tratamenduan jartzen?

Carla: Kasua hobeto ikertzeko denbora behar dut.

Esti: Bai zera! Ez dizut utziko harekin jolas egiten.

Carla: Bizitza kalitate duina berreskuratuko du aurki, niri esker. Itxaron ahal izango du apur batean. Lotara noa, berandu da.

Ama logelarantz abiatu da.

Esti: Ni ere horixe naiz zuretzako, ez ta? Buztin puska bat.

Carla: Laster harreman normal bat izango duzu zure Hector maitearekin. Noiz utziko diozu mukizu baten antzera jokatzeari?! Zergatik tematzen zara beti gauzen alde txarra ikusten?

Esti: (...) Eta gu biok zer, noiz edukiko dugu harreman normal bat?

Carla: Seguraski ni naizen modukoa naizela onartzen duzunean.

Carla badoa. Esti gelan geratu da.

Ilun.

Norbaitek ateko txirrina jo du. Carla logeletara ematen duen atetik agertu da. Ze ordu den ikusi du. Berriro ere atea jo dute. Carla eseri egin da. Hirugarrenez atea jo dute. Carla, patxadaz zutitu eta atea ireki du zalpagaila sakatuta. Badator Hector, bere bi Niak lagun dituela.

Carla: Egun on, Hector.

Hector: Egun on.

Hector dibanera doa zuzen.

Nia1: Ez diat ulertzen nola nahiago dian alaba, emakume honekin zerua ikusiko huke, eta zorte apur batekin baita infernua ere.

Carla: Ez dugu terapiarik egingo, Hector. Beste arrazoi bategatik etor arazi zaitut.

Hector: Zera, nik, nik asko sentitzen dut bart gertatutakoa, ez zen zure alabaren arrea izan.

Carla: Ez dio axola noren errua izan zen. Baina gure lanbideko arau nagusietako bat hautsi zen, hori da egia bakarra. Ulertzen duzu, ez ta?

Nia1: Argi eta garbi zagok, hi haiz ergela hi, mundo osoan terapia batetik botatzen duten lehen pazientea izango haiz.

Hector: Ez da berriz gertatuko, nire hitza duzu.

Carla: Damutzeko beranduegi dela uste dut.

Hector: Entzun, mesedez. Zuk bakarrik lagundu nazakezu, okerra zuzentzeko prest nago, edozer egingo dut, zure laguntza behar dut, badakizu.

Carla: Egia aitortuko dizut. Askok estimatzen zaitut... eta bai, lagun zaitzaket. Baina litekeena da kanpoko laguntza behar izatea?

Nia1: Ze arraiio esan nahi dik?

Carla: Sesioak gabatu egin ditut.

Nia2a suminduta zutitu egin da eta megirada gogorra zuzendu dio emakumeari.

Nia1: Zertan ari haiz? Ez urduri jarri, aditu?

Carla: Estrategia terapeutikoaren parte da. Sesioak berrikusten ditut lasaiago aztertzeko eta era egokiagoan zuri laguntzeko.

Nia1: Ze arraio esan nahi dik?

Hector: Zer esan nahi duzu?

Carla: Zure baimena behar dt grabatutakoa lankide batzuei erakusteko.

Nia1: Bai zera!

Carla: Ematen badidazu zure kasuarekin jarraituko dut, bestela, zaila izango da.

Nia1: Hector, ez zabaldu ahorik eta pentsa ezak zorozaile talde batek gure lepotik barre egingo diaala, dagoeneko entzuten ditiat haien barre algarak.

Nia2: Txantaia duk.

Nia1: Horixe bera.

Hector: Zergatik ez zenidan esan sesioak grabatzeko asmoa zenuela?

Carla: Arrazoi bakarra dago, zuk grabatzen ari nintzela jakingo bazenu ez zinateke zaren bezala agertuko. Tira, Hector, izan zentzuduna. Azken aukera eskeintzen ari natzaizu.

Nia1: Galdetuiok zein garrantzitsua den berarentzat grabaketa horiek erakustea.

Hector: Ondo da, egingo dut.

Nia1: Galdetuko diok?

Hector: Baimena emango dizut kasuarekin jarraitzen baduzu.

Carla: Jakina jarraituko dudala.

Nia1: Et, et et...ez hain azkar.

Carla: Zure oneritzia dudala jasotzen duen dokumentuaen bila noa, sinatu besterik ez duzu egin behar.

Carla badoa delako dokumntuaren bila. Nia2 gela arakatzan hasi da, kamarak non egon daitezkeen aztertzen.

Nia1: Negoziatzaile tamalgarria haiz, badakik?

Hector: Bera da lagundu diezaken bakarra.

Nia1: (*Nia2-ri*) Zertan habil?

Nia2: Kamara non ote dagoen begira nabilek.

Nia1: Laborategi bateko arratoitxoak bezalakoak gaituk, beraz. Dagoeneko ez zaik duintasun izpirik geratzen ala?

Hector: (...)

Nia1: Bale, horrela baduk ez zagok beste erremediorik. Hectortarren izen ona babestu behar diagu. (*Nia2-ri*) Haizk hi, uztak hori eta hator laguntzera.

Hector: Zer darabilk buruak?

Nia1: (*Nia2-ri*) Eutsiok gogor, azkar, ez dadila mugitu ere egin. Dagoeneko ez haiz nagusia.

Nia2k gogor eutsi dio Hector-i.

Hector: Baina, zoratu egin al zarete?

Nia2k ahoa estali dio. Hector saiatuko da bestearengandik askatzen, baina ez du lortuko. Badator Carla, dokumentua eskuan duela. Berarentzat, orain, Nia1 da Hector.

Carla: Azken orrialdean sinatu behar duzu, hemen boligrafoa.

Nia1: Agian hobeto pentsatu beharko nuke...

Carla: Egoera zein den nahikoa garbi geratu dela uste nuen.

Nia1: Tira, ez txarrerako hartu, baina nik hutsune batzuk ikusten dizkiot “egoerari”.

Carla: Adibidez?

Nia1: Nola lagunduko didate zure lankideek?

Carla: Haien eritziak lagungarri izango ditut. Hobe beharrez egiten dut, Hector. Zerbait gertatu da? Akaso zure ahotsek eritziz aldarazi dizute?

Nia1: Ahotsak mututu egin dira, doktorea.

Carla: Seguru, Hectorrekin ari naizela?

Nia1: Guztiok gara Hector. Ondotxo dakizu hori.

Carla: Ongi da, ez baduzu sinatzen, beste profesional batengana jo behako duzu laguntza eske.

Nia1: Lasai, emakumea. Nik ez dut esan sinatuko ez dudanik.

Nia1-ek dokumentua hartu eta bistadizo bat ematen dio.

Nia1: San Francisco?

Carla: Han bilduko dira munduko profesionalik onenak.

Nia1: Hain urrutira joateko asmoa duzu niri laguntzeagatik?

Carla: Esan dizut.

Nia1: Jakina, esan didazu.

Carla: Ez dakit zeratik duzun hainbeste zalantza.

Nia1: Egia aitortuko dizut, zuk arestian egin duzun era berean. (*Emakumearengana hurbilduz*) Nik ere asko estimatzen zaitut zu, ikaragarri estimatzen zaitut.

Carla: Burua galdu duzu.

Nia1: Sinadura hori nahi duzu?

Carla: Zer nahi duzu, nik musu ematea?

Nia1: Borodate onenarekin ari zarela erakusteko modu egokia litzateke, ez duzu uste?

Carla: Ez dut uste Hectorrek hau onartuko lukeenik.

Nia1: Hector benetan ezagutzen duzula uste duzu? Zergatik ez didazu logela erakusten?

Carla: Gutxi eskatzen ari zara zure duintasunaren ordainetan.

Nia1: Sinadura horrek bost axola niri.

Carla: Ba sinatu behingoz, eta utzi tontakeriak. Nigatik ez bada, egizu Hectorrengatik!

Nia1: Eta zuk erakutsi logela. Egizu Hectorrengatik!

Carla: (...) Ongi da. Sinatu eta egingo dut.

Nia1-ek sinatu egin du. Carlak dokumentu hartzeko keinua egin du baina Nia1-ek ez dio hartzen utzi.

Nia1: Dokumentu hau hementxe geratuko da, zuk emandako hitza bete arte. Ez jari aurpegiera hori, Carla, ez zara damutuko.

Carla: Oso ongi, zergatik ez?, Sexua nahi duzu? Ba sekula izan duzun onena emango dizut.

Carlak eskutik ahrtu du Nia1 eta logelara eraman du. Nia2 eta Hector zur eta lur geratu dira eszenari begira. Nia2 derrepente, biluzten hasi da.

Hector: Ene Jainko maitia! Zertan ari haiz?

Nia2: Biluzten ari nauk, ez al duk ikusten?

Hector: Hago geldi, arraioa!!

Nia2 geratu egin da.

Hector: Ez gaituk hor sartuko, aditu? Hau, zera, hau zera duk, amets gaiztoa, horixe! Ez duk gertatzen ari...Joder! Kabroi madarikatu hori akabatuko diat!! Zerbait egin behar diat!

Logelara abiatu da baina zerbait entzun du giblean eta gelditu egin da. Izan ere, Esti sartu berri bait da etxean.

Hector: Joder!

Nia2: Berandu habilela uste diat, Hector.

Estik, jakina, ez ditu ikusten eta normaltasunez ari da. Poltsa sofa gainean utzi du.

Hector: Zerbait egin behar diagu!!

Nia2: Zer moduz korrika ospa egiten badiagu?

Esti: Ama?

Hector: Ez dago etxea, joan egin da, oraintxe bertan, presaka zebilen, korrika batean egin du alde, beharbada haren bila joan beharko zenuke, orkatila bihurritu baino lehen.

Nia2: Ez hau ez ikusten eta ez entzuten.

Hector: Kaka zaharra!

Esti: Ama?!

Esti logeletara doa.

Hector: Ez, Esti, etzazu egin....Ez!!

Esti desagertu da korridorean barrena.

Hector ero baten gisan hasi da amak aurrerago emandako pastillen bila, mahaiko kajoietan. Ez ditu aurkitu.

Hector: Kaka, hementxe egon beharko lirateke!

Nia2: Berandu habil, Hector.

Hector: Hago isilik eta lagunduidak pastillak aurkitzen!!

Konturatu da Nia2 arrazoi duela, Esti gelan sartu berri da, aurpegiera zeharo araldatuta, zurbil. Ama eta "Hector" ohe berean ikusi berri ditu, zirrika eta laztanka. Bat batean, negarrez hasi eta korrika alde egin du etxetik.

Hector: Ez, Esti, ez da zuk uste duzuna, hori ez naiz ni. Ni naiz Hector, ni bakarrik!!

Esti desagertu da.

Hector: Joder!

Une horretan Nia1 sartu da logeletara ematen duen sarreratik. Jazten ari da.

Hector: Anker madarikatua!!!!

Hector Nia1-en gainera oldartu eta lurrera bota du. Ukabilkada eman behar dio baina Nia2 eutsi eta Nia1 engandik aldendu du.

Hector: Askatu! Askatzeko esan diat!

Nia1: Baina, hi...ze ero haizek jo hau?

Hector: Ero aizek? Hi, zera haiz, hi...Estik ikusi egin zaituzte, guztia ikusi dik!! Putakume hori!

Nia1: Bazekiat, gustoren geudenean sartu duk. "Coitus interruptus eta finiquitus". Ama bañuan sartu duk lotsak jota...(Harro, DVDA erakutsiz) Eta nik grabaketa eskuratu diat.

Hectorrek gainera kendu du Nia2 eta ukabilkada demasa eman dio Nia 1-i eta lurrera bota du. Hector korrika atera da etxetik, Estiren bila doa.

Nia1: Eskertzarreko hori kapaz duk bere burua ibaira botatzeko txikikeria honengatik...Goazemak, saihestu egin behar diagu.

Bi Niak Hectorren atzetik abiatu dira presaka.

Parkeko bankua dakusagu orain. Esti dator, lur jota. Eseri egin da. Handik gutxira Hector iritsi da eta segundu apur batzuen bueltan, beste biak.

Hector: Esti.

Esti: Ez zaitut berriro ikusi nahi.

Estik bizkarra eman dio Hector-i.

Hector: Entzuidazu Klara, utzi getatutakoa azaltzen.

Nia1: Ea nola arraio egiten duan.

Hector: Ohean ikusi duzun hori ez nintzen ni. Nik ez nuke sekula halakorik egingo.

Nia1: Jakina ezetz.

Esti: Utzi bakarrik, arren! Zoaz, ospa!.

Nia1: Hobe lasaiago zagokenean saiatzea.

Hector amorro biziz zutitu da eta Nia1 engana hurbildu da.

Hector: (*Ahots behera*) Isiltzen ez bahaiz garbitu egingo haut.

Nia2k akera probestu du eta Hector zegoen toki berean eseri da, neskarn ondoan.

Nia2: Esti...

Nia1: Begira zer egin duan.

Hector: Kaka!

Nia2: Entzuidan, Esti. Hau guztia nahiko konplikatua dun. Baina Hectorrek ez din gertatutakoaren errurik. Hector hirekin txora txora eginda zagon. Sekula ez diat horrela jokutzen ikusi. Berarentzat hi haiz munduko gauzarik inportanteena. Hire beharra din. Lanetik ere bota egin ziten. Lehenago nahikoa arrazoi izango zunan bere buruaz beste egiteko, ez izan zalantzarik, baina ez din halakorik egin, borrokan jarraitu din, bizitzari aurre egin zionan, ausart. Potroak behar ditun horretarako. Hik salbatu dun. Azkenan aurkitu din bizitzen segitzeko arrazoi on bat.

Nia1: Hara, gure “mututxo”.

Nia2: Hector tipo jatorra dun. Mundua handiegi geratu zitzaionan, baina hori nori ez zaion gertatzen?

Estik buelta erdi eman du, Nia2ren hitzek bigundu egin dute.

Esti: (*Harrituta*) Nor arraio haiz hi?

Nia2: Ni? Ni zera naun...bestea.

Esti: Hi oheratu haiz nire amarekin?

Nia2: Ez, ez, hori beste bat izan dun. Guztiak din azalpen bat.

Esti: Beste bat? Zenbat zarete ba?

Nia2: Hectorrez gain, beste bi.

Nia1: Neska nahastu egingo duk.

Esti: Edozein kasutan, haren parte zarete. Hectorrek beraz ba din zerekusirik amarekin gertatutakoarekin.

Nia2: Hector ez gaitin beti nahi adina kontrolatzen.

Esti: (...) Nirekin maiteminduta zagon, benetan?

Nia2: Esan dinat, txora txora eginda zagon hirekin.

Nia1: Zora-zora eginda, ondo esana.

Hectorrek kaskarrekoa eman dio.

Nia1: Ai!

Esti: Berarekin hitz egin nahi niken.

Nia2: Ados.

Nia2 zutitu eta lekua ekaini dio Hectorri. Hector eseri da Kararen ondoan.

Hector: Kaixo, Esti.

Esti: Hector zara?

Hector: Bai.

Estik zaplastekoa eman dio.

Hector: Ai!

Nia1: Ño, eskubi ederra din monjatxuak!

Esti orain musu sutsua eman dio Hectorri.

Nia1: (*Nia2-ri*) Harritu egin nauk, zin dagiat. Hori bai hori hitz jarioa. Halere, nik nahiago diat ama.

Nia2k le kaskarrekoa eman dio.

Nia1: Ai! Baina...

Nia2: Hago isilik, babu arraioa!!

Nia1 mutu geratu da. Estik eta Hectorrek musuka jarraitze dute, Estik bat batean, distantzia hartu eta zera esaten duen arte:

Esti: Ama akabatu behar dut.

Ilun.

Hilabete batzuk igaro dira. Carla gelan agertu da. Oso dotore jantzita dago. Sakeleko telefonoa hartu eta deia egin du. Erantzuteko zain dagoen bitartean bekarritakoak jarri ditu.

Carla: Kaixo, ni naiz, bai, Carla. Bai, zera jakin nahi dut maitea, ea dena prest dagoen. Jakina, ez, ez, gaur bertan izan behar da. Tira, horrek itzaron dezake. Ez, San Franciscokoa ez zen aurrera atera, egia esan, ez zen hain importantea...Bai, horixe, datorren urtean beharbada...Bai, bai...jakina, eta giltzak? Konforme. Mila esker, maitea.

Telefonoa eseki du.

Carla: Hoa antzarrak perratzera, kotilla halakoa.

Ordulariari begiratu dio.

Carla: (*Ahots gora*) Hala ba, txikitxo, berandu gabiltza. (...) Esti, Jainkoarren, utzi ispilura begiratzeari. (...) Esti?

Esti agertu da soinean jantzi dotore bezain diskretoa duela. Haren begiek negarrez egon berri dela erakusten dute.

Carla: Zer arraio gertatu zaizu?

Esti: Sentitzen dut, ama.

Carla: (*Beldur puntu batekin*) Alaba, sesedez, arren eskatzen dizut...berriro ez.

Esti: Ezin dut. Egin egin nahi dut, baina pentsatzen hasten naizen bakoitzean arnas hestuka hasten naiz, ito egiten naiz. Beharbada ospitalera joan beharko nuke, ez duzu uste?

Carla: Ez gara inongo ospitalera joango.

Esti: Anbulategira orduan, bihotza geizki dudala uste dut. Agian min biziak jota nago...

Carla: Ez da ezer gertatzen, primeran zaude, eta gainera oso guapa.

Esti: Min biziaren aurka prebentzioa da garrantzitsuena. Garaiz harrapatuz gero, senda naiteke.

Carla: Ezinezkoa da garaiz harrapatzea ezer ez duzunean.

Esti: A ze prebentzio alua!

Carla: Nahikoa da, Clara! Hectorri ditu beharko diot berandu iritsiko garela esateko, ea zer aitzakia asmatzen dudan.

Esti: Ez dago deitu beharrik.

Carla: Hura ere urduritasunak jota ikusi nahi duzu ala? Ondotxo dakizu osatzen ari dela, ez dut uste honek guztiak ezertan lagunduko dionik, haren osasunean pentsatu beharko zenuke.

Esti: Ez dago deitu beharrik nik neuk deitu diodalako.

Carla: Nola?

Esti: Ezin dut egin...

Carla: Jakin daiteke zer esan diozun?

Esti: Ezin dut egin...

Carla: Zer esan diozu, Clara?!

Esti: Ezin dut egin...

Carla: Esti!!!

Esti: Ezin dudala egin esan diot!

Carla: Ai, ene, Jainko maitia.

Une horretantxe ateko txirrina entzun da.

Carla: Hara, bera izango da.

Esti: A ze lotsa! Ezin dut ikusi!

Estik korrika alde egin du bere logelara.

Carla: Esti! Esti!

Carlak arnasa sakon hartu du goiari eusteko eta atea zabaldu du. Hector eta bere Niak gelan sartu dira. Guztiak ere erropa berbera daramate soinean, jaka eta pajarita.

Hector: (*Kezkatuta erabat*) Non dago?

Carla: Zera...pajarita jarri duzu?

Nia1: Esan diat ba nik, erridikulu galanta egingo geniala.

Hector: Bai, tira. Ez baduzu gustoko kendu egingo dut.

Carla: Ez, ez...ongi dago.

Nia1: Gezurretan ari duk.

Hector: Non dago? Berarekin hitz egin behar dut.

Carla: Bere logelan giltzaperatu dela uste dut. Historia errepikatu da. Ez dut uste aterako denik zuk alde egin arte.

Hector: Ezin al duzu konbentzitu?, Psiquiatra zara!!, badakizuela jendea tratatzen suposatzen da!

Carla: Nahigo nuke banku lapurreta bateko bahituak askatzen saiatzea...En fin, ahalenginduko naiz.

Carla badoa barrura. Hector eta bere "lagunak" gelan geratu dira.

Nia1: Apustu egingo nitek gaur ez haizela ezkonduko, Hector.

Hector: Hago isilik!!

Itxaronaldia tentsioz beteta dago.

Nia1: Honek ez dik itxura onik. Eta kontuz zure buruz beste egitea pentsatzen ari bazara, hirugarrenean beti asmatzen da eta.

Hector: Clararekin ezkonduko naiz, kosta ahala kosta.

Nia1: Zergatik ez duk atea oskikada bat emanda botatzen?

Hector: Hago isilik!

Nia1: *(Nia2ri begira)* Honek gustora egingo likek...

Nia2: Isiltzeko, ostia!

Tentsioa gainezka.

Nia1: Honek ez du traza onik.

Ama bueltan dator.

Carla: Ez dago modurik.

Hector: Utzi harekin hitz egiten.

Carla: Dendora galtzea da. Bide bakarra dago hau guztia konpontzeko.

Denek begiratu diote, jakinminez.

Carla: Ezkontzaren ondoren egiteko asmoa nuen baina, tira, agian hobe lehen bait lehen egiten badut.

Carla berriro sartu da korridorean barrena.

Nia1: Daturen bat falta zaiguk hau dena ulertzeko.

Carla bueltan dator maleta bat eskuan hartuta.

Carla: Apartamentu txiki bat erosi berri dut. Nire lagun batena zen, beti nahi izan dut etxe hori erostea. Hau zera...handiegia iruditzen zait. Urte gehiegi eman dut hemen. Bada garaia nire alabarengandik independizatzeko, ez duzu uste? Estik bakarrik egin beharko du hegan aurrerantzean, badu sasoia. Hauxe da nire ezkontza oparia. Bizitza osoa eman dut alaba kontrolatzen, hura mendean hartzen eta badakizu zergatik? Ez nuelako harek ni bakarrik uzterik nahi. Ez naiz ama on bat izan, eta ez dut barkamenik eskatu nahi, ez dudalako merezi.

Hectorrek begirada Clararengan iltzatu du. Izan ere, Clarak, amaren azken hitzak entzun bait ditu.

Carla: Banoa, alaba maitea. Eta nire eritzia jakin nahin baduzu, doala pikutara ezkontza. Zuok biok elkar maite duzue, hori begibistakoa da, ez utzi ezkontza ergel bat zuon maitasun horrentzat traba izatea.

Isilune labur eta emozioz betetako baten ondoren, Esti amarengana hurbildu eta besarkatu egin du. Nia1 pieza erromantiko bat txistukatuz hasi da. Nia2k kokotekoa eman dio.

Nia1: Ai!!

Carla: Banoa, taxi bat eskatuko dut.

Esti: Ez duzu zertan...

Carla: Esti maitea, ez naiz etxe honetan segundu bakar bat ere geratuko.

Esti: (...) Utzi laguntzen. (*Hector-i*) Oraintxe nator.

Esti eta ama badoaz. Estik amaren maleta darama.

Nia1: Ez badiat geizki ulertu, orain etxe hau, etxe osoa esan nahi diat, bere metrotxo, altzaritxo eta atetxo guztiekin gurea duk, ez duk? Puta madre!

Nia1 sofan etzan da luze. Hectorrek pastila potea sakeletik atera eta begira geratu zaio.

Nia1: Esaten nian ba nik emakume hori jator askoa zuala. (*Ohartu da Hectorrek pastilak eskuan dituela*) Aizak hi, zertan habil?

Hector: Saiatu egin behar nauk.

Nia1: Kaka saiatu! Hi ez haiz inor gu gabe, ondotxo dakik hori!

Hector: Saiatu egin behar nauk.

Nia1: Baina, ez al zuan ba garbi geratu...? Hi, hi traidore bat haiz, engainatu egin gaituk, guri esker iritsi haiz honaino, ez al haiz jabetzen? Noiz arte iraungo diaala bakarrik uste duk?

Hector: Bizitza osoa beharbada?

Nia1: Patetikoa haiz. Hi, hi...

Nia2: Itxi ahotzar hori!

Nia1: Zer? Eta hik zer nahi duk?

Nia2: Berak arrazoi dik.

Nia1: Bere alde hago?

Nia2: Hi ez ala?

Nia1: Zera,...jakina...ni hire hobe beharrez ari nauk, Hector. Hi zera haiz...nola esan? Apur bat...zera bezala...hik ulertzen didak.

Hector: Jakina, ederto ulertzen diat.

Nia1: (...) Eta betirako izan behar duk?

Hector: Tira...

Nia1: Agian noizbait gure beharra izango dik, ohean edo...edo abesteko.

Hector: Nork jakin?

Nia1: En fin...a ze babu parea.

Hectorrek pilula bi hartu eta irentsi egin ditu.

Nia1: Kaka!

Hector Nia 2ren ondora hurbildu eta besarkatu egin du. Nia2 zeharo hakituta dago.

Hector: *(Nia1-i)* Hik ez didak emango?

Nia1: Nahigo hire poxpolinari eman.

Nia2 sofan eseri da, lasai.

Nia1: Pikutara guztia, hau duk hau patu puta! (...) Haizak Hector, aldatu izen artistikoa. Hec Mártin lotsagarri geratzen zaik.

Nia1-ek amore eman eta eseri da sofan, bestearen aldamenean. Hectorrek pasila potea mahai gainean utzi du, guztien bistan. Badator Esti. Elkarri begiratu diote, sutsu. Esti badoa korrika Hectorrengana eta besarkatu egin du. Musu eman dio. Ondoren, eskutik heldu eta logelarantz darama.

Esti: Zergatik azkenerako utzi? Has gaitezen ezkontza gautik.

Badoaz. Nia1 eta Nia2 bakarrik geratu dira.

Nia1: Hi haiz ergela, hi, biok batera konbentzituko genian. Orain kabroi horrek egunero hartuko dizkik pastila puta horiek eta akabo festa!

Isilunea.

Nia1: Joder...Berekoi hori goxo goxo egongo duk oraintxe, eta gu hemen. Joder!

Isilunea.

Nia1: Koma sakon baten sartuko gaituk.

Isilunea.

Nia1: Nabari duk zerbait?

Nia2: Oraindik ez.

Nia1: Nik ere ez.

Isilunea. Nia1 pastila potea mahai gainean dagoela ohartu da. Zutitu eta mahaira hurbildu da. Pastila potea eskuan hartu du eta bistadizo bat eman dio.

Nia1: (*Irrifartsu*) Putakumea!

Nia2: Zer duk?

Nia1: Hauek ez dituk botikak.

Nia2: Nola ez direla? Seguru al hago?

Nia1: Nahita egin dik!

Nia1 biluzten hasi da korrika eta presaka.

Nia2: Zertan habil?

Nia1: Ez al duk ulertzen? Kabroi horrek berarekin nahi gaitik! Ez dik nahi gu jokoz kanpo geratzerik!

Nia2, segundu pare bat pentsatzen eman ondoren, biluzten hasi da baita ere. Biak ahala biak Estiren gelara habiatu dira ziztu bizian.

Esti (off eran): Joder, Hector, horrela, horrela, segi, segi, bai, bai bai Baiiiii!!!!!! (*Bat batean garraxi egiten du, erabat izututa*) Ahhhhh!!!!!!

Esti korrika batean dator salara. Haren atzetik Ama dator Estik duen arropa bera soinean duela. Ama Estiren Nia bihurtu da.

Esti: Ze, ze egiten ari zara?!! Utz nazazu pakean, ez niri jarraitu!!

Hector eta bere bi Niak ere badatoz salara.

Hector: Zer duzu, maitea? Zer gertatu da?

Esti: Zer gertatu den? Ba...

Estiren Nia: Hire printzipeak ezin nau ikusi, polit hori. Erridikulo galanta egiten ari haiz.

Nia1: Orain ere ezingo diagu ba larrutan egin?

Hector: Ondo al zaude?

Esti: Ba...Bai, bai...ondo nago, ez dakit zer gertatu zaidan.

Hector: Zaude lasai, maitea. Beldurra ematen du bizitza berri bat hasteak, baina dena ondo aterako da.

Esti: Bai...jakina. (*Bere Niari begiratzten dio errezeloz*) Dena ondo aterako da.

Hectorrek musu ematen dio.

Nia1: Holaxe, Hector, ondo habil goxo goxo.

Hectorrek sofara darama Esti musukatzen duen bitartean. Bere bi Niak badoaz festan parte hartzera, eta gauza bera egiten du Estiren Niak. Horrela bada, ménage à cinq hiperbólico bat osatuko dute.

ILUN.

AMAIA